


ASTELEHENEKO Goienkaria

2006ko abenduaren 18a > Astelehenena > III. urtea > 127. zenbakia > 0,90 euro

www.goiena.net

"Norengan fidatzerik ez dago, ulergarria da gazteak nazkatzea"

Lucio Urtubia
Anarkista > 09



ARRASATE

Eguenean hasiko dira Santamas azokako ekitaldiak > 11

OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeak zilarrezko 'Q'-a eskuratu du > 12

KIROLA

UDA taldeak irabazi egin zion Zarautz liderrari: 1-0 > 19

KULTURA

Donostiako Orfeoia eta Euskadiko Orkestra Oñatin izan dira > 27

OSASUNA > DESFIBRILADOREAK ENPRESETAN

Bihotza suspertzeko gailuak gureko lantegietan

DEKRETUA laz onartutako dekretuak ez-sanitarioek erabiltzeko aukera ematen du, eta lantegi ugari badituzte

GURUTZE GORRIA Ibarrean Gurutze Gorriak ematen ditu ikastaro gehienak; aurten bederatziz izan dira guztira > 3

DEBAGOIENA > KORRIKA 15

Martxoaren 23an eta 25ean igaroko da hemendik

Martxoaren 22an abiatuko da, Karrantzatik, eta gurera martxoaren 23an iritsiko da. 22:47 aldera gurutzatuko du Araba eta Gipuzkoa arteko muga eta Leintz Gatzagara iritsiko da. Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati gurutzatuko ditu eta handik Legazpirako bidea segituko du. Martxoaren 25ean etorriko da berriz: Des-kargatik sartuko da 08:28 aldera eta Antzuola eta Bergara igaro ondoren Elgetatik hartuko du Bizkairako bidea. > 04

ARRASATE > SEXOLOGIA

Sexologia Zerbitzuak hamar urte egin ditu

Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzua ospakizunetan murgilduta dago. Bulegoa ireki zutenetik hamar urte pasa dira; tarte honetan, ibarreko lagunen kezka eta curiositate ugari argitu dituzte. Izan ere, Debagoienean zerbitzu mota hori ematen duen bulego bakarra da Arrasatekoa. Urteurrena ospatzeko antzerki ikuskizuna iragarri dute: egunean izango da, Amaia antzokian, Beñat Zamalloaren gidaritzapean. > 09



ALABAREN LANA. Mirian Mulasen aitak gertutik jarraitu zuen alabak finalean egindako lana.

JOSETXO ARANTZABAL

KIROLA > SANTAMASETAKO VI. BOULDER TXAPELKETA

Markel Mendieta arrasatearra izan zen onena elite mailakoan artean

60 eskalatzaille ibili ziren Uarkapeko boulder txapelketan > 15

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Iritzia > 08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-22

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-Telebista eta

Hitzorduak > 29

Berri-zakua > 30-31



Urtarrilera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu urtarrilaren 3ra bitartean. Hori dela-eta, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren hurrengo zenbakia urtarrilaren 8an argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo igaro gabonak.

DANBAKA > URTARRILAREN 12AN IZANGO DA FINALA

Aby-Kem, Malenkonia eta Belceblues dira finalistak

Egubakoitzean izan zen Danbakako azkeneko kontzertua, Inalectrik, Little, Little Much, The 5 Twisters eta Anal Bag taldeekin. Taldeek maila polita erakutsi zuten kontzertuetan, eta polito ibili ziren.

Hala ere, ez zen gau erabakigarria izan, epaimahaiak Aby-Kem (Bergara), Malenkonia

(Oñati) eta Belceblues (Bergara) taldeak aukeratu ditu-eta finale-rako. Kasualitatez, hiru taldeek elkarrekin jo zuten azaroaren 3ko kontzertuan.

Finala urtarrilaren 12an izango da eta talde gonbidatua Kero-bia izango da. Orduan ere jakingo da nori ematen dioten bakar-lari onenaren saria. > 23-25

Barruan UDA kirol elkartearen futbol posterra



ITZIAR UGARTE

optika

ORDAINKETA ERRAZAK

**6 hilabetetan
ordaintzeko aukera.**

(N.A.N. eta zure kontu-korrante edo txartel zenbakiarekin bakarrik)

INTERESIK GABE
Galde iezaiguzu!!

0%

OSASUNA > EZ-SANITARIOEK DESFIBRILADOREAK ERABILTZEKO DEKRETUA ONARTU ZEN IAZ

Desfibriladoreak jartzen hasi dira gureko lantegietan aurten

DEKRETUA 2005ean Jaurlaritzak onartu zuen pertsonal ez-sanitarioek erabili ahal izateko legea, eta hainbat lantegitan ipini dituzte dagoeneko

GURUTZE GORRIA Ia beti bihotz-geratzeetan ezinbestekoa da horiek erabiltzea. Gurutze Gorriak bederatzikastaro eman ditu aurten ibarrean

LEGEDIAREN BEHARRA Oraingo dekretuak erabilpena bakarrik arautzen du, baina aditu eta fabrikatzaileek ezarpen-legeak eskatzen dituzte

JON BEREZIBAR > BERGARA


Iaz onartu zuen Eusko Jaurlaritzak desfibriladoreak (bihotz-gelditzea detektatu eta haren erritmoa deskarga elektriko bidez berrezartzen duen aparailua) pertsonal ez-sanitarioak erabiltzeko dekretua. Bihotz-gelditzeetan ezinbestekoa da berehalako erreakzioa, eta ikastaroa egin duen edonork erabili dezake gailua. Horregatik interesa agertzen lehenengo lantegiak izan dira. Ibarrean ere, enpresa handietan ia zuzen dabilta desfibriladoreak ipintzen eta Debagoieneko Gurutze Gorria arduratzen da kasu gehienetan ikastaroak emateaz.

BEREHALAKO ERANTZUNA

Santi Sarmiento da Bergarako Elorregi auzoan dagoen postuko Boluntariotza eta Formazio zuzendaria, eta hura arduratzen da ikastaroez. Hark garbi dio "ezinbestekoa" dela "bihotz-gelditzeetan desfibriladoreen erabilpena; heriotza ugari ekidin dezakeen neurria da dekretu hau". Hain zuzen ere, bihotz-gelditzeari lehen sei minutuetan erantzun behar zaio, bestela itzuli-ezina da, eta horregatik da horren garrantzitsua gailuen eskuragarritasuna.

Ibarrean lehenak Copreci koak izan ziren. Dekretua indarrean sartu baino lehenago daukate han desfibriladore bat, baina mediku-pertsonalak bakarrik erabiltzen du. Pertsonal ez-sanitarioak erabiltzeko, aldiz, ibarreko lantegi askok aurten ipini dituzte: Euskadiko Kutxan, Ulman, Fagor Garagartzan eta berriki Ederlanen ipini dute, hain zuzen ere. Hori dela eta, Debagoieneko Gurutze Gorria zortzi orduko ikastaroak ematen ibili da azkenaldian, Osasun Sailak akreditatutako erakunde moduan. Badaude enpresa pribatuak ere ikastaroak eskaintzen dituztenak, baina gurean ikastaro gehien Gurutze Gorriak berak eman ditu. Pertsonal ez-sanitarioak erabiltzeko, desfibriladoreak detektatu egiten dute bihotz-gelditzea eta horren arabera ematen dute deskarga; erabiltzaileek, hortaz, aparailua aplikatu besterik ez dute egin behar.

Gailuei dagokienez, hainbat fabrikatzaile daude, eta ibarreko aparailu gehienak MCC taldeko Osatu enpresakoak dira.



GURUTZE GORRIA Argazkiko gailua erabiltzen du Debagoieneko Gurutze Gorriak desfibrilazio ikastaroetarako.

JOSETXO ARANTZABAL

Ezagutzera ematen dabilen arloa da oraindik desfibriladoreena, baina Ibon Zabala Ermuan dagoen enpresako komertzialak ere

aparailuen garrantzia azpimarratzen du: "Su-itzalgailuen filosofia bera da desfibriladoreena, inoiz ez zabaltzeko nahiarekin

daude eginak, baina, behin erabiltuta, bizitzak salba ditzakete, eta horregatik animatu dira hainbeste enpresa azkenaldian", azaltzen du hark. Izan ere, orain arte beldurra zegoen enpresetan gailu horien erabilpenarengatik, eta, hala, dekretuak bide berriak irekitzen ditu.

LEGEA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Hala ere, oraindik ere bultzada handia falta dela agerian ipini gura du hark: "Alde batetik, legegia zabalagoa behar da, desfibriladoreak egotea behartuz, eta, bestetik, oraindik ere kontzientziazioan eragin beharra dago, ze edonoren eskura egon behar ko bailukete. Horren harran, Santi Sarmientok gehitzeko daukana da desfibriladoreen garrantziaz gain, gailuen erabilpen ez dela inondik inora bihotz-masajearen eta erreanimazio tekniken ordezkua. Hala ere, "gaur egun anbulantziek ez dituzte bizitzak salbatzen, ia ezinezkoa izaten da eta hamar minutuan ezbeharraren lekura iristea", eta desfibriladoreen dekretu berria oso begi onez ikusten du. Lege-

AZKAR ERANTZUN BEHARRA

Bihotz-gelditzeen %75 susper ditzakete desfibriladoreak

Ikastaroetan, Gurutze Gorriko Santi Sarmientok adibide benetan argigarria ematen die erabiltzaileei. Las Vegasko kasinoetan bihotz-gelditzea izaten dutenen %75 suspertzea lortzen dute desfibriladore automatikoekin. Arrakasta hori dela eta, 150 metroko gailu bana omen daukate han. Hain zuzen ere, sei eta hamar minutura bitartean erantzun behar zaio bihotz-gelditzeari; bestela, ia itzulezina baita. Hala eta guztiz ere, Gurutze Gorriko kideak argi uzten du gailuaren erabilpena ez dela inoiz ere erreanimazio teknikengatik ordezkagarria. Biak dira elkarren osagarri.

BOLUNTARIOEN BEHARRA

Boluntario gehiagoren beharra ibarrean

Gipuzkoako delegaziorik lanpetuenetakoa da Elorregikoa ikastaroei dagokienez. Aurten desfibrilazioaren gaineko bederatzikastaro eman dituzte, baina lehen sorospenetakoak dira enpresetan gehien ematen dituztenak. 65 langile eta boluntario daude gaur egun ibarrean hainbat alorretan: anbulantzia zerbitzuan, nagusien arretan, garraio egokitan, nazioarteko kooperazioan... Hain zuzen ere, aurki hasiko dute behartsuenendako jostailuak jasotzeko kanpaina. Era berean, boluntario gutxi dagoela diote, eta nahi duenak ateak zabalik ditu eta programa ugari aukeratzeko.

DATUAK

%95

BERANDU HELTZEAGATIK HIL

AEBetako Bihotzaren Elkarteko datuen arabera, bihotz-gelditzeetan %95 hiltzen dira desfibrilazioa garaiz ez egiteagatik.

%85

BEHAREZKOA ERABILTZEA

Bihotz-gelditze kasuen %85ean ezinbestekoa da desfibrilazioa, eta hori gehienez ere hamar minutuan egin behar da.

ak, baina, ez du obligaziorik ezartzen eta oraindik zalantza handiak daude enpresetan. Datuak, edozelan ere, esanguratsuak dira: gelditzeen %75 suspertzen dute desfibriladoreak.

KORRIKA 15 > MARTXOAREN 22AN HASIKO DA KARRANTZAN ETA APIRILAREN 1EAN BUKATUKO DA IRUÑEAN

Birritan pasako da Korrika 15 gure ibarretik: martxoaren 23an eta 25ean

Hilaren 23an Leintz Gatzagatik sartuko da, gauez; hilaren 25ean, Antzuolatik, goizez

Euskal emakumeak omenduko ditu Korrikak euskara gordetzen egin duten lanarengatik

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Geroago eta hurbilago dago AEK-
k antolatzen duen Korrika ekitaldia. Martxoaren 22an abiatuko da, hain justu, Karrantzatik, eta, Euskal Herria zeharkatu eta gero, apirilaren 1ean iritsiko da Iruñera.

Korrika 15 hasi, eta berehala iritsiko da Debagoienara. Martxoaren 23an, 22:47 aldera gurutzatuko du Araba eta Gipuzkoa arteko muga eta Leintz Gatzagara iritsiko da. Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati gurutzatuko ditu eta 02:41 aldera utziko du gure ibarra Legazpi aldera hartzeko. Hala eta guztiz ere, bigarren bisita ere



MEZUA Heldu herriari! Heldu hitzari! Heldu elkarlanari! Heldu euskarari! Heldu lekukoari! da aurtengo leloa.

ARTXIBOA

egingo digu Korrikak. Hain zuzen, martxoaren 25ean etorriko da berriz: Deskargatik sartuko da 08:28 aldera eta Antzuola eta Bergara igaro ondoren Elgetatik hartuko du Bizkairako bidea.

KORRIKA BATZORDEAK

Ibarreko AEK-ko ordezkariak dagoeneko buru-belarri ari dira Korrika 15 antolatzeko lanean. Jakinarazi dutenez, urtarrileko bigarren astean jarriko dituzte

martxan Korrika batzordeak eta norbanako zein talde guztiek atak zabalik dituztela azpimarratu dute. Kilometroak saltzen ere laster hasiko dira. Kilometro bakoitzak 380 euro balioko du.

AHT

Eskoriatza eta Arrasate arteko bi zati enkantera

Bi tarteak egiteko 191,44 milioi euroko aurrekontua aurreikusi dute

A.G > BERGARA

AHTren Eskoriatza-Aramaio eta Aramaio-Arrasate tarteak enkantera ateratzeko baimena eman zion barikuan Ministroen Kontseiluak Sustapen Ministerioari. Eskoriatza-Aramaio tartearen enkanterako aurrekontua 113 milioi euro da eta 30 hila-beteko exekuzio epea du. Luzerari dagokionez, 5,58 kilometro izango ditu. Hiru zubibide izango ditu eta GI-3343 errepide gainera igaroko diren lau tunel bikoitz.

Aramaio-Arrasate tarterako 78,34 milioi aurreikusi dituzte, 30 hileko exekuzio epea eta 3,39 kilometro izango ditu. A-2620aren gainera igaroko diren zubibideez eta Etxarriko tunelaz gain, 1.196 metroko tren geltokia eta aurreratze postua izango ditu.

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan Focus Coupe Trend 1.6 100 ZP, C-MAX Newport 1.6 100 ZP eta Fiesta Coupe Ambiente 1.3 70 ZP. autoentzat. Gasolinazko Prever Plana, BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Abenduaren 31ra arte baliagarria. Lehenengo lau kuotak Ford-ek ordaintzen dizkizu. Eskaintza hau ez da baliagarria langile eta flotentzat. Ikusten diren modeloak: Focus S 18"-ko hagunekin, C-MAX Ghia 17"-ko hagunekin eta Fiesta S.

FORD-EN EGUN URDINAK HEMEN DITUZU.
ORAIN, LEHENENGO LAU KUOTAK ORDAINTZEN DIZKIZUEGU.



FordFocus 12.700€-tik hasita



FordC-MAX 15.000€-tik hasita



FordFiesta 8.900€-tik hasita

Egun Urdinak
Abenduak 31ra arte bakarrik.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference



Fermin Lazkano > 'Egunkaria' auzian auzipetua

"Fiskalaren erabakiarekin pozik gaude, baina neurrian; orain tribunalak du hitza"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Fermin Lazkano bergarra *Egunkaria*-ren itxierari buruzko auzian dago auzipetua. Eguenean, fiskalak kasua ixteko eskatu zion epaimahaiari. Bada, Lazkanorekin egon gura izan dugu auziak hartu berri duen norabideaz jarduteko.

Pozik zaude fiskalak *Egunkaria* kasuan hartu berri duen erabakiarekin?

Sorpresa hartu dugu eta pozik ere bagaude, baina neurrian. Estatuak berak eragin zituen *Egunkaria* ixtea eta atxiloketak, eta orain, Estatuak edo Estatuaren zati batek, behintzat, esaten du ez dagoela deliturik. Alde horretatik pozik gaude; akats aitortze bat dagoelako.

Baina ez da behin betikoa; oraindik ere akusazio partikularrak aurrera jarraitzen du eta tribunalak berak ere erabaki egin behar du, eta tribunalak du azkeneko hitza.

Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku dago orain epaiketa egin edo ez. Epaiketa bertan behera geratuko den esperantzarik baduzue?

Ez, esperantza halako gauzetan sekula ere ez da izaten. Horregatik esaten dugu halako erabakiak ezustekoak direla; hutsala da esperantza izatea. Beti esaten dut gauza objektiboen zain egon behar dela, subjektibotasuna alde batera lagata. Izan ere, orain arteko subjektibotasuna gure aurkakoa izan da beti. Orain, zain geratzen gara, eta ikusiko dugu zer gertatzen den: tribunalak fiskalaren erabakiarekin bat egiten badu oso pozik geratuko gara.

Beste auzi batzuentzat baliagarria izan daiteke fiskalak *Egunkaria* kasuan izan duen jarrera?

Ez dut uste. Nik uste dut azkenaldi honetan jarrera nahiko kontrajarriak izan dituela fiskalak, eta erabaki hau ona izan den bezala txarrak ere izan direla. Beraz, nik uste dut unean uneko



Fermin Lazkano.

ARTXIBOA

"Azkenaldian jarrera nahiko kontrajarria izan du fiskalak; ez du ildo jakin bat jarraitu"

"Kalte handia egin digute; eta oraindik ere kautelazko neurriak indarrean dauzkagu"

erabakiak hartzen dituztela eta bata bestearekin ez dutela zerkusirik izaten.

Gainera, erabakiek ez dute ildo jakin bat jarraitzen. Ildo jakin bat jarraituko balute agian, baina oraindik ez dago hori horrela dela erakusten duen arrazoirik.

Urrats garrantzitsua izan arren kaltea eginda dago. Eragindako kaltea nork ordainduko du?

Kalte handia, gainera. Atxilotu egin gintuzten eta oraindik ere kautelazko neurriak indarrean ditugu. Neurri bat bera ez digute kendu: kontuak itxita ditugu, ondasunak bahituta, ezin mugitu, sinatu beharra... Horrek guztiak berdin jarraitzen du.

Bestetik, akzionistak daude; *Egunkaria*-ren akzionistak zirenek ondasun batzuk zituzten, eta dena galdu dute. Haiek ere zeresana izango dute eta baita harpidedunek ere. Harpidedunen kasuan, otsailean bertan eten ziren harpidetza batzuk ordainduta zeuzkaten. Baina orain ez da garaia horretaz jarduteko. Behin betiko ixten denean kasua, orduan izango da garaia horretaz hitz egiteko.

Eragindako kaltea norbaitek ordaindu beharko luke, teoriarik, baina makina bat aldiz ikusi ditugu Euskal Herrian halako bidegabekeriak. Eta orain arte ere inork ez ditu ez kalte-ordainak ez minak zuzendu.

MCC TALDEA

Jose Maria Aldekoa izendatu dute zuzendari

Uztailean hartuko du kargua, Jesus Cataniak erretiroa hartzen duenean

A.G > BERGARA

MCCk aukeratu du datozen urteetarako burua. Jose Maria Aldekoa (Zaldibar, 1947) izango da, hain zuzen ere, MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakaria. Barikuan egindako Batzorde Iraunkorrean hark jaso zituen boto gehien.

Aldekoa MCCko zuzendariorde da 1992az geroztik, eta horrekin batera Automozio dibisioko zuzendari nagusia ere bai 1999a ezker. Bestalde, 1999an Euskadiko automobilgintzaren klusterreko lehendakari izendatu zuten, eta 2001era arte lan horretan ere aritu zen. MUko Goi Eskola Politeknikoko Kontseilu Errektoreko lehendakari kargua ere bete zuen 1998tik 2002ra.

UZTAILEAN HARTUKO DU KARGUA

Barikuan aukeratu bazuten ere, uztailean 1era arte ez du kargua hartuko, orduan hartuko du-eta erretiroa gaur egungo lehendakari Jesus Cataniak. Bien bitartean, elkarlanean jardungo dute lehendakaritzari dagozkion zereginetan. Epe horretan, gaur egungo lanean ere jarraituko du Aldekoak.



Jose Maria Aldekoa.

> OSASUNA

Esklerosi anizkoitzaren eguna da gaur

Esklerosi anizkoitzaren eguna da gaur, astelehena. Horren harira, Ademgi elkar-teak laguntza batzeko mahaia jarri zuen zapatuan Bergarako San Martin plazan. Elkar-tearen asmoa da dirua batzea Donostian eraikitzen ari diren errehabilitazio zentro-rako. EAEn irekiko den ezaguri horietako lehenengo zentroa izango da eta 2007ko maiatzean irekiko dute. Esklerosi anizkoitza gaixotasun sendaezina da gaur egun. EAEn 2.000 gaixo daude; horietatik 600 Gipuzkoan.

> AUTODETERMINAZIOA

Ezker abertzaleak mobilizazio eguna deitu du etziko

Autodeterminazioaren alde, baldintza demokratikoak! leloarekin, hilaren 20an herriz herri egingo diren mobilizazioetarako egin dute dei.

Azaldu dutenez, euren aldetik "prozesua egoera larri honetatik ateratzeko zinezko borondatea" dago. Baina azpimarratu dute Euskal Herriari bere izatea onartu ezean eta herritarroi erabakitzen utzi ezean, nekez lortu ahal izango dela gatazkaren konponbide demokratikorako baldintzarik.

> ENHA

Ibarreko ia herri gehienetan tramitatu dituzte agiriak

Udalbiltzak antolatutako Naziotasun Eskubideen Egunaren harira, ibarreko herri gehienetan izan da asteburuan ENHA egiteko aukera. Halaber, Nazio Batuen Era-kundera igortzeko eskaera ofizialak betetzeko aukera ere izan da.

Batasunak ere bat egin zuen Naziotasun Eskubidearen Egunarekin, eta gauden garaian ENHaren erabilerraren garrantzia azpimarratu zuen.



AZKARATE
aroztegia





- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak



Arotz lanetan behar duzun guztia

Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020

www.goiena.net/blogak/azkarate

Oñatiko Gazte Asanbladak eta Erauntsi Bilguneak antolatutako jardunaldi libertarioen barruan gonbidatu dute Lucio Urtubia, Parisen bizi den anarkista nafar beteranoa. Egubarran koitzean egin zuen hitzaldia. Frantzian 'Lapur ona' goitizengatik ere da ezaguna Urtubia, borroka libertarioaren ize-nean hainbat iruzur eta lapurreta historiko egin eta gero.

Lucio Urtubia > Anarkista

"Umetan bizitako pobreziarengatik galdu nion errespetua gizarteari"

JON BEREZIBAR > OÑATI

75 urterekin, bizitza guztia egin du Lucio Urtubiak errepresioaren aurka eta anarkismoaren ideiak zabalitzen. Anarkista menderaezina bezala agertzen du berriki Frantziako Estatuan argitaratutako haren biografia arrakastatsuak. Oñatiko hitzaldian haren borrokaren gainbegiratu egin zuen.


Oñatiko Gazte Asanbladak gonbidatuta etorri zara. Ertzaintzarekin arazoak izan eta epaiketei aurre egiten dabilta gaur egun kideak. Zer esango zenieke gazte horiei?

Eutsi dezatela. Jarraitzea beste erremediorik ez dago askatasuna defendatzeko eta horretarako borroka egin behar da. Ezin daiteke ez demokratikoa ez libertarioa izan askatasuna defendatu barik. Defentsa hori, gainera, guztion ondasuna eta beharra da. Guztiz ulergarria da espazio bat hutsik badago hori okupatu eta funtzionaraztea. Guztiak izan behar du zerbitzua eta guztiaz zerbitzatu behar dugu, baina modu arduratsuan. Hori da anarkia: ardura. Pazientzia behar da eta eutsi egin beharra dago. Baliabide asko dago orain, lehen ez bezala, eta gauza asko egin daitezke. Gazteria nazkatuta egotea ulergarria da, ez dago inor fidatzekorik-eta. Gauza jakina da pertsona bat boterera heltzean usteldu egiten dela. Nik ez daukat soluziorik, ez dauka inork. Ez dago eredurik boterean norbait zintzoa eta koherentea izan denik.

Anarkia, maiz nahita, benetan ez denarekin nahasten dute askok, ala?

Anarkia ezagutzen ez duen jendeak hitz egiten du horrela. Anarkia ardura da, sorkuntza, bizitza esparru guztien ardur hartzea. Historia anarkistek egin dute, gustatu edo ez. Franco ez zen kalera atera sozialistak, errepublikarrak, komunistak edota estalinistak zeudelako, anarkistek eraldatze soziala zekartelako baizik. Anarkistek lurak birbanatzen zituzten. Sozialistak, ordea, erreformistak izan dira beti, eta errepublikarrek anarkistak espetxeratzten zituzten, 35.000 guztira izan zituzten itzalpean.

Hain zuzen ere, aste honetan bertan eztabaidatu da Espainiako Kongresuan Memoria Historikoaren Legea eta badi-rudi ezta alderdi bat bera ere



Lucio Urtubia, Oñatiko Rodrigo Mercado de Zuzola institutuko aretoan, hitzaldia egin zuen lekuan.

JOSETXO ARANTZABAL

ez dela gustura geratu. Hain zaila da iragana berrikustea?

Jendea ez da arduratzen memoria berreskuratzeaz. Gobernuak egiten uzten dietena egiten dute, besterik gabe, bizizale hutsak dira-eta. Nire ustez, espainiar anarkistek egin nahi izan zutena harro egotekoa da: kartzelak irekitzea, lurak okupatu eta banatzea. Lur horiek aberatsenak ziren eta alferrik galtzen utzita zeuden. Ezer ez zeukan jendeari ematen zizkion lurak. Erriberan, fusilatua izan ziren gehienak arrazoi horiengatik hil zituzten: lurak okupatu eta birbanatzearen. **Behartsu horien artean zerorren familia zegoen, ezta ?**

Gure aita karlista izan zen eta hark zioen Madrili zerga bat bera ere ez zegoela zertan ordaindu, ezta zerbitzatu ere. Karlistak ziren eta garai hartan karlismoa Madrilekiko independentzia aldarrikatzea zen. Gure aitak eliza bateko tiroketa baten hartu zuen esku liberalen aurka. Kar-

HISTORIA

"Anarkistek egin dute historia. Franco kalera irten zen anarkistek zekarten gizarte-eraldaketarengatik"

GAZTERIA

"Guztiz ulergarria da gazteak nazkatuta egotea; norengan fidatu ez daukate"

GOBERNUA

"Ez dago pertsona eredurik boterera heldu eta zintzo eta koherentziaz jokatu duenik"

tzelan luzaroan izan zen eta Marokoko gerraren osteko urteetan askatu zuten. Emakumeak ere orduan trenbidearen gainean ipintzen ziren haien semeak hegaldara ez joateko eta gerran ez hiltzeko. 14.000 hildakoko batailak egoten ziren Marokon, sarraski hutsa zen, sinestezina. Anarkistak ziren gerren aurka egiten zutenak, haiek esaten zuten gobernuei ez zitzaizela kasurik egin behar.

Hala ere, mugimendu libertarioekin lehen hartu-emanak Parisen izan zenituen, ihes egin zenuenean.

Oso familia txiroa zen gurea; guztion familiak ziren moduan. Hala ere, orduko amen aberastasuna daukat gordeta gogoan, zelan ematen ziguten jaten, zelan bizi irauten genuen haiei esker. Pobrezia horrengatik galdu nion nik errespetua gizarteari, ez nuen ahaleginik egin behar izan ezarritako botereari errespetua galtzeko.

Pobrezia aipatzen duzula, zer iritzi duzu GKEen lanaz?

Oso garrantzitsua. Nire emaztea Medicus Mundiko Ameriketako Behartsuekiko Kooperazio zuzendaria da. Beti gobernuetatik kanpo egin beharrekoak dira, haietaz ez da ezer espero-eta.

Zer gertatu da Frantzian hirietako talde baztertuak egindako errebolta txiki horietan?

Gertatutakoak baino gauza larriagoak espero behar ditugu. Gazte horien gurasoek aberastu dute Frantzia eta kolonialismoak haien jatorrizko herrialdeak desjabetu zituen. Espainian ere berdin gertatzen da. Gaur egun etorkin mordoa dago Espainian eta hori ez zaio batere kostatu Estatuari. Frantziako egoerari dagokionez, auzune horietan bizi den jendea benetan txiroa da. Baldintza horietan gizartea jasatea oso zaila da. Nik Frantzia biziki maite dut, baina ezin da ahaztu oso herri arrazista dela, eta kontuan hartzekoa da hori.

oharrak eta deialdiak

OÑATI

> Olentzerori Internetez gutuna idatzi

Olentzerori Internetez gutuna idazteko lehiaketa antolatu du KZguneak, ume eta helduendako. Parte-hartzaileen artean, Eroskin on-line erosteko txartelak zozketatuko dituzte, eta denendako opariak egongo dira.

BERGARA

> Urteko azken odol-ateratzea

Urteko azken odol-ateratzea egingo dute etzi, eguaztena, seminarioko lokaletan, 18:30ean.

OÑATI

> Herriarraren Txartela erabiltzen ikasteko

Herriarraren Txartela erabiltzen irakatsiko dute bihar, martitzena, KZgunean, 19:30etik 20:30era.

BERGARA

> Erakusleho lehiaketa antolatu du Udalak

Herriko komertzio guztiak sartzen dira erakusleho lehiaketan. Horretarako, abenduaren 12tik urtarrilaren 2ra, biak barne, behar bezala prestatuta egon beharko dute erakuslehoek. 250 euro eta garaikurra emango die hiru onenei.

ARRASATE

> Hasierako yoga ikastaroa Sanatana Dharman

Hasiera mailako yoga ikastaroa antolatu du Sanatana Dharma

eskolak. Urtarrilaren 8an hasiko da, eta apirilaren 5ean bukatu. Astelehen eta eguaztenetan izango da, 09:30-11:00 ordutegian. Telefonoak: 943-78 17 83 (Maite; 21:00etatik aurrera)/635-71 06 16.

BERGARA

> Bi ikastaro antolatu ditu Udalak

Honako ikastaroak antolatu ditu Udalak: batetik, sabel dantzarena, hasiera mailakoa. Euskaraz izango da, eta Agorrosinen emango dituzte eskolak. Bestetik, sukaldaritza begetarianoa eta elikadura lantzeko tailerra dago.

OÑATI

> Bidezko merkataritza denda Gabonetan

Bidezko merkataritza denda ipiniko du parrokiako misio taldeak Kale Barriko Don Pedrueneko behealdean. Hurrengo hiru asteburuetan zabalduko

dute, egubakoitz arratsaldetik domeka goizera arte.

BERGARA

> Euskaraz ez dakiten gurasoendako hitzaldia

No sabemos eusker... ¿cómo podemos ayudar a nuestros hijos? izeneko hitzaldia antolatu du Jardunek. Inaki Eizmendik eta Julio Ibarrek egingo dute berbaldia etzi, eguaztena, kultura etxean, 18:30ean.

ESKORIATZA

> Autobidearen eragina azalduko dute

Onbide.org kalte-tuen elkarteak AP-1 autobidearen eragina azalduko du hitzaldi baten. Etzi, eguaztena, izango da Inkernu tabernan, 19:00etan.

DEBAGOIENA

> Saharara bidaltzeko produktu bilketa

Saharako kanpalekuetara bidaltzeko produktuak batzen ari dira

Debagoieneko elkartasun taldeak. Supermerkatuetan produktuak uzteko dei egiten dute.

ESKORIATZA

> Txistorra-jana izango dute erretiratuek

Txistorra jateko aukera dute Olazar erretiratuen etxeko bazkideek eguenean, hilak 21, euren egoitzan, 17:30ean. Segidan, opariak zozkatuko dituzte.

ARETXABALETA

> Patinaje ikastaroa antolatu du Udalak

Patinaje ikastaroa antolatu dute abenduaren 26tik 29ra bitartean kirol etxean, ordutegi desberdinarekin adin multzo bakoitzerako. Bazkideek 14 euro ordaindu behar dute, eta gainerakoek, 16.

ARRASATE

> Hainbat ikastaro hil bukaeran KZgunean

Honako ikastaroak emango dituzte KZgunean: GIMP 1 (hilak 26 eta 27, 11:00-13:00), sinadura elektronikoa (hilak 26, 18:00-19:00) eta foroak eta laguntza baliabideak (hilak 26, 19:00-20:00). Hurrengo egunetan tailer gehiago izango dira.

ESKORIATZA

> Interneten umeak babesteko modua

Zure seme-alabak babestu izeneko Internet ikastaroa emango dute hilaren 22an, egubakoitz, KZgunean, 10:30-11:30 ordutegian.

etxeko leihotik



Monika Belastegi > ASTELEHENEKO GOIENKARIAko erredaktore burua

Olentzeroren oparia esku artean

Gabonen atarian Olentzero aurreratu egin zaigu Goienan. ASTELEHENEKO GOIENKARIA berritua ekarri digu opari bere zakuan. Eskuetan duzen hauxe, hain justu. Bi urte eta erditik gora pasatu dira, dagoeneko, lehenengo alea atera genuenetik eta ordutik hona hazten joan gara poliki-poliki. Erronka ez da erraza izan: euskarazko aldizkaria ateratzea, eta ordaindutakoa, gainera. Baina harpideok eman diguzuen konfiantzarekin eta astelehen goizetan kioskoan gure astekaria erosi duzuen irakurleoi esker, ASTELEHENEKO GOIENKARIA proiektua sendotu eta indartu egin dugu. Urrats berria eman dugu orain, ibarreko gaurkotasunari sendo eusteko eta irakurleen gogoia asebetetzeko asmoz.

Olentzerok ekarritako opariak guztion beharrak asetzeko adinakoak izan daitezela. Guk, gure aldetik, orain arteko gogoari eutsiko diogu eta 2007an ere hor izango gaituzue, Debagoieneko euskal prentsa astelehenero zuengana helarazten gero eta informazio sakon eta zuzenagoarekin. Gabon zorionsuak igaro ditzazuela eta datorren urtera arte.

"Bi urtetik gora pasatu dira, dagoeneko, lehenengo alea atera genuenetik"

> Bergarako Zuhaitz taberna zigortzeko tramiteak abiarazi ditu Lakuak uniformedun ertzainei ez zerbitzatzeagatik. Pistola polizia-etxean lagata joango ziren tabernara ala soinean zutela?

> Auditoriaren gainean, alkateak proiektuaren printza batzuk aurreratu zituen aurreko baten. Filmak ikusi ahalko direla esan zuen. Azalpen gutxiegi hainbeste herritarrek zinea eskatzen duela ikusita.

debagoiendarrak kanpoan

Dani Laskurain > Margolari eta irakaslea

"Bergaran zinema aretoa falta da; horixe ekarriko nuke Iruñetik"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Dani Laskurain bergararra pintura artean ezagutu izan dugu. Beart elkartearekin hainbat margolan erakusketa egin ditu herrian. Orain, ibilbide profesionala ere artearekin lotu du Laskurainek, ikastetxe batean plastika maisua da-eta.

Zenbat urte daramazu Bergaratik kanpo bizi izaten?

Badira urte batzuk Bergaratik kanpo lanean hasi nintzela, baina behin betiko Iruñera bizi izatera orain dela 8 urte etorri nintzen. Lan kontuengatik etorri nintzen Iruñera; plastika irakasle naiz Zizurko ikastetxean.

Gogorra egin zitzaizun etxetik joan beharra?

Ez, egia esan, ez. Gainera, aste bukaera ia guztietan joaten

naiz etxera; harreman handia dut bai lagunekin eta bai familiarekin ere. Autoan ordubete besterik ez dago Bergara eta Iruñea artean; beraz, ez zait luzea egiten Iruñetik etxerako bidea.

Iruñean bizi arren Bergararekin harremana izaten jarraitzen duzu. Nolako lortura daukazu?

Lotura oso estua dut Bergararekin; denbora honetan guztian ez dut herriarekin dudana lotura moztu. Lagunak eta familia Bergaran izaten jarraitzen dut, eta horregatik askotan itzultzen naiz herrira.

Bergarako zer sumatzen duzu faltan Iruñean?

Beti dago faltan sumatzen den zerbait. Kasu honetan, ez da Ber-



ARTXIBOA

Zizurren irakasle

Irakasle lanetan aritu izan da Laskurain. Orain, Zizurko ikastetxean plastika irakaslea da bergararra.

garako zerbait, baina itsasoa da Iruñean faltan sumatzen dudana. Itsasoa gertuago geratzen da Bergaratik Iruñetik baino!

Eta zer ekarriko zenuke Bergarara?

Duda barik, zinema aretoa eramango nuke Bergarara, ez daukagu-eta.

Gabonetan Bergaran ikusiko zaitugu?

Bai, bai. Gabonak etxekoekin pasako ditut. Koadrilakoekin ere elkartuko naiz; afariren bat edo beste egiteko. Egia esan, koadrilakoak askotan elkartzen gara; hilabete behin-edo afaria egiteko ohitura dugu.

Errege Egunean parrandan ari-tuko zara, beraz.

Bai, Errege Eguna egun handia izaten da Bergaran. Urtero bezala, aurten ere koadrilakoekin afaria egingo dugu eta gero kale-ara aterako gara parranda egitera. Dagoeneko hartu dugu afari-tarako lekua...

Nola ikusten da Debagoiena kanpotik?

Iruñean gipuzkoarroi *robasetas* deitzen digute, baina orokorrean ez dute hemengo berri askorik. Jendeak ez du Debagoiena ezagutzen; Bergara entzuna egiten zaie, baina jendeak ez daki non dagoen. Gipuzkoa Donostiarekin lotzen dute; hala, gipuzkoarra zarela esatean donostiarra zarela pentsatzen dute. Donostia eta inguruko herriak ezagutzen dituzte, baina ez gure ibarra. Hori bai, jendeak Jam aretoa ezagutzen du.

kale inkesta

Zein iritzi duzu 2008an indarrean jarriko den aitatasun lege berriari buruz?

Javi Corbal
Langilea
Bergara

Ondo iruditzen zait onartu berri den legeak dioena. Gure alaba jaio zenean, legezko bi egunak bakarrik hartu ahal izan nituen. Gero, egun batzuk hartu nituen; baina nire oporretako egunak ziren.

Marisabel Oregi
Irakaslea
Bergara

Oso ondo iruditzen zait. Eta, gainera, amei ez digute gure amatasun bajatik egunik kentzen. Bada, 15 egun baino gehiago izan beharko liriteke. Justua dela uste dut aukera hori gurasa biek izatea.

Miguel Quintas
Langilea
Bergara

Semea izan nuenean, tokatzen zitzaizkidan egunak hartu nituen. Bada, ez nuen opor gehiagorik hartu. Lege berriarekin, beste seme-alaben bat izanez gero, egun gehiago hartzeko aukera izango dut.

Itxaso Aginagalde
Langilea
Bergara

Ondo iruditzen zait legea. Alaba izan genuenean, nire senarrak duen lanbideagatik, ez zituen jaiegunak aukeratu izan. Gainera, haurra izan eta lehenengo egunetan beharrezkoa da laguntza izatea.

irakurlearen txokoa

943-25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> **Zamalanak egiteko aparkalekuen erreserba bidegabekoa**
Bergarako irakurle batek zenbait garraiariren jokabidearen gaineko oharra utzi nahi izan du. Hark dioenez, zenbait kaletan zamalanak egiteko dendaren aurrean oholak edo beste edozein gauza uzten dituzte, inork bertan ez aparkatu ahal izateko. Leku horietan ez ei dago seinalizazio ofizialik eta irakurleak dio ez dutela inongo eskubiderik aparkalekuak horrela okupatzeko. Zenbait kaletan behin eta berriro gertatzen dela dio hark, eta "gehiegikeria" hori salatu gura du.

ARRASATE

> Erdialdeko bideen kaosa

Irakurle batek dio "barregarria" dela Arrasateko erdialdeko bideen "korapiloa". Hark ez du ulertzen zelan itxi duten Garibai kalea, "herriko igarobide nagusia zena", eta alde batetik bestera igarotzeko Grupo San Juanetik igaro beharra izatea. Horren harira, galdetzen du ea auzune horretako bizilagunek zer iritzi duten egunero handik hainbeste auto pasatzeaz, "hor biderik ere ez dagoenean". Irakurle horrek ez du ulertzen zelan orain arte Otolara kalea hain egoera txarrean izan duten eta San Andrestik Musakolara joateko egin beharreko ibilbide "katramilatsua". Honako hau gehitzen du: "Herrikoek arazoak baditugu herrian alde batetik bestera ibiltzeko, kanpotarrak nola konponduko dira Arrasaten autoz?". Bukatzeko dio "absurdoa dela hiria antolatzen dabilzan modua.

ustek uste

Jon Berezibar

Kontsumoa eta etika

Jostailu trukea egin dute asteburuan Arrasateko haurrek Txatxilipurdik antolatuta eta Uxue Zabaleta, elkarteko arduradunak, kontsumo etikoaren sustapena aipatu zigun arrazoi moduan. Ausarta iruditu zitzaidan Gabonetan halako berba handiak ekartzea eta txalogarria haurrengan halako printzipioak zabaltzea. Arrakasta itzela izan du Txatxilikoek ekimenak baina susmoa daukat kontsumoa eta etika haurrentzako hitz potoloegiak ez ote diren. Susmo bera pizten zait nire buruari galdetzerakoan ea gurasaok haurrei egitasmoaren funtsa zein zen azaltzen arduratuko ote ziren. Asteon atzeko atetik sartu zaigu negua eta sasoi honetan ere atetik emango digu atetik kontsumitzeko sukarrak. Hala ere, bejondeiela Txatxilikoek.

zorroztailea




Jabier Arantzeta

Zer irakurtzen dugu?

Inkestaren arabera gipuzkoarrek *El Diario Vasco* eta *EITBra* jotzen dute informatzeko. %72,4k diote normalean *DV* irakurtzen dutela. Portzentaje hori oso nabarmena da beste egunkariekin konparatuz: %7k *Gara*, %5,7k *Berria*, %2,5ek *Noticias de Gipuzkoa*, %1,6k *El País*, %0,5ek *Deia*...

El Diario Vasco > 2006-12-16



Hau da, nire uste apalean, Gipuzkoako arazorik larriena, eta baditugu arazo larriak: errepideak, AHT, Errealaren egoera eta beste; baina neuri zeharo ulertezina egiten zait PP Gipuzkoan %15 inguruan dabilenean PPko egunkaria gehien irakurtzea.

Asko dira aipatzen diren arrazoi edo aitzakiak: inpartzialtasuna, herrietako berriak, eskelak, etxebizitzaren iragarkiak, eta abar, baina gehiago dute hauek aitzakiatik arrazoitik baino. Izan ere, inpartzial itxura izan arren, aukeratzen dituen berriak, eta zein berri non joan behar den aukeratzekoan, gonbidatzen dituen iritzi emileen iritziak irakurtzerakoan, eta editorialetan argi eta garbi ikusten da *DV*ren helburu nagusia, asko saltzeaz gain, Espainia handi, bakarra eta betikoa mantentzea dela. Herrietako berriei begiratuz gero, hemen ere garbi ikusten da zeintzuk diren berri eta zeintzuk ez, hemen ere eskumako balore tradizionalak nagusi. Eskeleki eta iragarkiei begiratuta, ez dago garbi asko saltzen delako agertzen diren, ala agertzen direlako asko saltzen den.

Dena den, *DV* gehien saltzen bada, arrazoiak beste bat da, kanpora begiratu ordez, etxe barrura begiratu beharra daukagu Gipuzkoako abertzaleok; izan ere, ez dugu jakin egunkari dezente bat sortzen. Gehiengo handia duen PNVk nahiago izan du etxeko kontsumorako *Deia* eduki, ezker abertzalekoek ere euren *Gara*-rekin konformatu dira, eta euskara besterik irakurri nahi ez dugun lau katuok hor daukagu *Berria*.

Eta honen guztiaren ondorioak diruditen baina larriagoak dira: abertzaletasunak ez du aurrera egiten Gipuzkoan, eta hori baino txarra goa, eskumako balore tradizionalak oraindik indar handia dute gure artean: ekonomia gaizki doanean garbi dago langileen zakutik atera behar dela dirua, enpresariaren zakuan ez baitago eskurik sartzerik; atzeritarrak gure dirutik bizitzera etorri dira eta lagunduko diegu, aberatsak eta eskuzabalak garelako, baina horien eskubideak ez dira gurean modukoak; sexu berekoen arteko ezkontzak, edo abortua, onartu onartuko ditugu, oso modernoak garelako, baina ez dira normalak; eta horrela beste gauza askotan ere.

Beraz, garbi daukagu hemendik aurrera egin beharrezkoa, *DV* irakurri egin behar da, besteen berri jakitea beti da interesgarria, baina erosi, ahalik eta gutxien erosi behar da, besteen horien kopuruak behera egitea ere oso da komenigarria eta.

"Gipuzkoako abertzaleok ez dugu jakin egunkari dezente bat sortzen"

"Eskumako balore tradizionalak oraindik indar handia dute"

Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Erredakzioa Mireia Bikuña, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel, Jasone Zabala Oinarriko diseinua Goli Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano, Oñel Arrieta Publizitate arduraduna Mireia Larralaga Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otolara Lizentziaduna 31 • 132 postea-Kubxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 11 Bergara-Oñati > 12 Aretxabaleta-Eskoriatza > 13 Antzuola-Aramaio-Elgeta-Leintz Gatzaga > 14



> OÑATI
Arrasateko Corazon de Encina elkarteak *migak* prestatu zituen Oñatiko udaletxeko arkupeetan > 12



> ARETXABALETA
Beinke elkarteak herritarren berotasunarekin ospatu du 20. urtemuga > 13



> LEINTZ GATZAGA
Zapato goizean jarri zuten jaiotza elizpean herriko haurrek, gurasoek lagunduta > 14

ARRASATE > SEXOLOGIA ZERBITZUAREN 10. URTEURRENA

Sexologia Zerbitzua: hamar urte kezka eta beldurrei erantzuten

HELBURUA Askotariko kezkei erantzun objektiboa ematea izan da nahia

IBARREAN LEHENA Debagoiengan dagoen sexologia zerbitzu bakarra da Arrasatekoa

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak hamar urte bete ditu. Sexualitatearen inguruko kezka eta kuriositateak ase eta horiei erantzun aditua emateko helburuarekin sortu zen Sexualitate Zerbitzua; herritarren kezkei erantzun objektiboa ematea izan da helburu garrantzitsua.

Bestalde, sexologia edo sexualitatea herriratzea ere garrantzitsu ikusi zuten: "Sexualitate osasuntsuagoa bizi ahal izateko baldintzak sortzea izan zen nahia", adierazi digu Sexologia Zerbitzuko arduradunak, Larraitz Arandok.

Bada, ordutik hona hamar urte pasa dira. Atzera begira jarriz, urte hauetan egindako lana oso positiboa dela esan digu Arandok: "Helburuak oso potoloak izan ziren; beraz, esan daiteke helburu horietara iristeko urratsak eman direla, urrats oso baliagarriak".

IBAR OSORA ZUZENDUA

Ibarrean zerbitzu mota hori eskaintzen duen bulego bakarra da Arrasatekoa. Horregatik, Arrasateko Sexologia Zerbitzua Debagoien guztira zuzenduta dago. Erabiltzaileei dagokionez, "gehienak Arrasatekoak dira, baina bailara guztiko jendea da zerbitzu hau erabiltzen duena", azpimarratu digu Arandok.

Bulegoa pertsona guztiei zuzenduta dago; adin tarte guztietako jendea eta neska zein mutilak dira Sexologia Zerbitzuko erabiltzaileak. Kezkei dagokionez, pertsona bakoitzak oso kezka ezberdinak izaten dituela esan digu. Edozelan ere, errepikatzen diren kezka batzuk badaude: normalean, kezka horiek gizarte ereduaren ondorioz sortzen direnak izaten dira: "Hau da, gure gizartean ezarrita dauden ereduaren arabera emakumeak

ESANAK

"Sexualitate osasuntsuagoa bizi ahal izateko baldintzak sortzea gura izan dugu"

"Gizarte ereduak kezka eta beldur asko sortzen dituzte"

Larraitz Arando > Bulegoko burua

modu jakin batekoa izan behar du eta modu jakin batean sentitu behar du. Eta eredu horiek kezkek eta zailtasunak sortzen dituzte emakumeengan", azaldu digu.

Gizonezkoen kasuan ere kezkek berak dira: "Gizarte ereduaren arabera, gizonezkoek beti egon behar dute sexurako prest, edo beti izan behar du zakila tente edo beti koitorako gogoz egon behar du. Eta kontua da gizon edo mutil guztiak ezberdinak direla eta denek ez dutela zertan bat etorri gizartean dugun ereduarekin", esan digu Arandok. "Eredu horien aurrez aurre aurkitzean sortzen diren angustia eta beldurrei irtenbidea eman nahian etortzen da jendea guregana", gaineratu digu.

ANTZERKIA EGUAZTENEAN

Hamargarren urteurrena ospatzeko, eguaztenean, Amaia antzokian *Kitto!!!* ikuskizuna eskainiko du gaztetxeko Sardina Bakalau taldeak. Beñat Zamalloak zuzenduta, Sexologia ikasketak bukatu dituen lagun talde baten gorabeherak eskainiko dituzte. Umorea eta dramatizazioa uzartuko dituzte, besteak beste.



'KITTO!!!' Larraitz Arando Sexologia Zerbitzuko arduraduna eta Beñat Zamalloa antzerki obraren zuzendaria. SEXOLOGIA ZERBITZUA

DATUA

210

ERABILTZAILE

2005. urtean Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak 210 herritarren kezkek jaso zituen. Telefono bidez, Internet bidez edo bulegora hurbildutakoen kezkek izan ziren.

ERABILTZAILEEN PERFILA

Gero eta gizonezko gehiagok erabiltzen du

Arrasateko Udalak Sexologia Zerbitzua martxan jarri zuenetik erabiltzaileen profila asko aldatu da. Larraitz Arandok esan digunez, lehen, emakumezkoak izaten ziren euren kezka eta arazoaren berri ematera joaten zirenak. Gaur egun, baina, gizonezko asko joaten

da: neska eta gizonen erabiltzaile kopurua ia berdindu egin da. Adinari dagokionez ere, denbora-rekin erabiltzaileen adin tartearen asko zabaldu da. Sexologia Zerbitzuak bai 70 urteko nagusientzat eta baita 15 urteko nerabeentzat ditu ateak zabalik.

Opari bat Ikerrentzat.

Eta beste bat niretzat.

**Aurtengo eguberrietan,
zeure buruari egin opari.
kutxako zure kreditu-txartelak
erabiltze hutsaren truke.**

Erosketa bakoitzeko, gero opari bihur ditzakezun puntuak bilduko baitituzu. Begira nolakoak diren opariok www.kutxa.net-en edo **kutxaren** edozein bulegotan.

Sustapen honek txartel hauetarako balio du: kutxako Visa Classic, Visa Urre, MasterCard Urdin eta e-Business. Sustapenaren oinarriak eskuragarri daude www.kutxa.net-en eta **kutxaren** bulegoetan.

www.kutxa.net

 **kutxa**
zer nahi duzu bihar?

AZOKAK > KONTZIENTZIAZIOA ETA ELKARTASUNA

Ia gelditu barik ibili da jendea azoka bietan

Portaloira elkarteak bigarren eskuko azoka egin du asteburuan eta Txatxilurpikoek jostailu trukea antolatu dute kontsumo etikoa egitearen alde

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Harrera benetan beroa izan dute asteburuan Arrasaten egindako erabilitako arropa eta jostailuen azokek. Portaloira elkarteak presoan aldeko bigarren eskuko arropa eta pitxi azoka egin zuen Seber Altuben, eta erantzuna apartekoa izan zela diote antolatzaileek. Txatxilurpikoek, ostera, Gabonetako jostailu truke azoka egin zuten AED elkarteke lokaletan eta han ia etenik gabea izan zen jendearen joan-etorria. Gabonak aitzakia hartuta eta hotzari aurre eginez, herritar ugari gerturatu zen bai batera zein bestera. Era berean, bai Txatxilurpikoek zein Portaloira-koek balantze ezin positiboagoak egiten dituzte.

Jostailu truke azokan egubakoitzerako ia izakinik gabe geratu ziren. Azoka ireki baino ordu laurden lehenago, jendea atean

pilatzen ari zen; azkarrenek izan zuten, horrenbestez, zorte handien.

Azaroan batu zituzten Txatxilurpikoek trukeerako jostailuak eta haur bakoitzak txartelak jaso zituen, gero azokan beste jostailu bat hartu ahal izateko. Arrakasta hain izan zen handia egubakoitzean, alde aurretik itxi behar izan zituzten ateak zapaturako zerbaite gera zedin. Txatxilurpiko Uxue Zabaletak azaltzen duen moduan, kontsumo etikoa aldeko mezua zabalteko antolatu dute azoka, eta oso pozik daude izandako erantzunarekin.

PRESOEI LAGUNTZA

Herritarren erantzunarekin ere pozik daudenak Portaloira elkartekeoak dira. Bigarren eskuko arropa azoka ipini dute asteburu osoan Seber Altube plazan eta



PAGOTXAK Arropa gehien muga-prezioa bost euro izan zen. JOSETXO ARANTZABAL

harrera oso ona izan dutela diote antolatzaileek. Hala, presoan alde diru kopuru polita batzea lortu dute aurten ere.

Denetarik izan dute, batez ere neguko arropa, baina bitxi eta antzekoak ere aurki zitezkeen. Arrakasta handien, antza, jertse

eta nikiek izan dute. Prezio aldetik, bost eurotan zegoen muga orokorrean eta ez ziren gutxi izan aurki zitezkeen pagotxak. Aurtengoa azokaren bigarren urtea izan da, eta, izandako erantzuna ikusita, dagoeneko bada-biltza hirugarrenean pentsatzen.

DATUA

150

BAT JOSTAILU

Jostailu gehienak *jolas sinboliko* deritzenak izan ziren: plantxa, sukaldeak, eta abar. Puzzle eta adimen joko ugari ere egon ziren jostailu azokan trukatzeko.

5

EURO ASKO JOTA

Bigarren eskuko arropa azokan euro bat eta bost euroren artean zeuden prezioak. Pagotxa ugari aurkitu ahal izan ziren Seber Altuben asteburuan.

ELKARTASUNA

> KONTSUMO ETIKOA

Hori izan zen jostailu trukearekin bultzatu gura zuten filosofia. Gabonetan egiten den gehiegizko kontsumoa murriztu eta jostailuen berrerabilpena bultzatu nahi izan dute ekimenarekin.

> PRESOEKIN ELKARTASUNA

Urtean zehar makina bat ekimen antolatzen du Arrasateko Portaloira elkarteak presoekin elkartasunean. Asteburu honetan bildutako dirua ere presoek eta haien senideek laguntzeko erabiliko dute. Oso pozik daude antolatzaileek erantzunarekin.


SANTAMASAK > DOMEKARA ARTEKO EGITARAUUA PRESTATU DUTE

Eguenean aurkeztuko dute Santamasetako izarra: 'Frantxexka', 300 kiloko txerria

Egubakoitzean izango da azoka; 10:00etan irekiko dute eta fruta, barazkiak, ganadua eta artisauak egongo dira, besteak beste

A.G. > ARRASATE

Eguenean hasiko dira arrasatearrak Santamasetako giroa benetan sumatzen. Izan ere, orduan ekingo dio egitarauak bete-betean, eta horrekin batera, Santamasetako txerria ere egunean aurkeztuko diete herritarrei: *Frantxexka* du izena, 300 kiloko urdanga da eta Arabako Axpuru herriko baserri batean hazitakoa da. 19:00etan aurkeztuko dute, Herriko Plazan.



AURTENGO TXERRIA Aspuruako baserri batean hazi dute. ASTELEHENEKO GOIENKARIA

10:30ean, berriz, Artisauen erakusketa Jokin Zaitegi plazan.

Azokekin batera, baina, beste hainbat ekitaldi ere egongo da. Besteak beste, Zaldirabar pilotale-

kuan puntako aizkolari eta harri-jasotzaileak egongo dira, 12:00etan, eta ordu berean Igor Etxaniz *Kinttela*-k hezte erakustaldia egingo du.



JOSETXO ARANTZABAL

Kiroldegiko lanak martxa onean

Mojategiko kiroldeguko lanak martxa onean doazela aurreratu dute Udaletik. Hori horrela, aurreikusitako epeak bete egingo direla gehitu dute. Hala, apiril bukaera alderako bukatuta egongo direla azaldu dute. Dagoeneko padel eta tenis pistek estalkia jarrita dute; eta futbol, atletismo eta errugbirako gunean ere aurreratuta doaz lanak. Izan ere, belar artifiziala izango dutenez, hura jarri aurreko lur azpiko lanak egiten ari dira. Harmailetako eraikina ere ia bukatuta dago.

MUSIKA > ORFEOI TXIKIAK ESTREINAKO KONTZERTUA EGIN ZUEN ZAPATUAN

Ilusio handiarekin abestu zuten Orfeoi Txikikoek zapatuan

Gabero Abesbatzak ere egin zuen emanaldia; txikienek Gaberoko kideekin abesteko aukera ere izan zuten azken partean

M.B. > BERGARA

Bergaran musika koralerako zaletasuna dagoela ezin da ukatu. Zapatuan talde berria ezagutzeko aukera izan genuen Mariaren Lagundia elizan: Orfeoi Txikia, hain justu ere. 6 eta 12 urte bitarteko 40 bat gaztetxok osatzen dute eta zapatukoa euren lehenengo emanaldia izan zen.

Bi obra abestu zituzten, kantatzeko errazak, baina koreografia politarekin lagunduta. Aitor Biainen zuzendaritzapean jardun zuten eta inongo beldur barik eta ilusioz sumatu genituen. Biainek azaldutakoaren arabera, hiru entsegu besterik ez zuten egin emanaldirako, baina neska-mutikoak oso gogotsu ziren jendarean abesteko; "erronka" gisa hartu zutela esan zigun. Apirilera arte beste emanaldirik ez dutela egingo ere azaldu zuen Biainek:



HARROBIA Bergarako Ofeoirako harrobi izan liteke Orfeoi Txikia.

J.A.

nek: "Kideek elkar ezagutzeko eta taldea sendotzeko" lan egin behar dute ordura arte.

Bergarako Orfeoiak, Gabero Abesbatzak eta Musika Eskola-

ko Haurren Abesbatzak ere hartu zuten parte emanaldian. Azkeneko bi abesbatzek eta Orfeoi Txikiak elkarrekin ere abestu zituzten hiru obra.

> EUSKARA

Euskaraz ez jakin arren, seme-alaba euskaldunei nola lagundu azalduko dute etzi kultura etxean

Jardun elkarteak *No sabemos euskera... ¿Cómo podemos ayudar a nuestros hijos?* izenburua duen hitzaldia antolatu du. Euskaraz ez dakiten edo zailtasunak dituzten gurasoei zuzenduta dago. Hitzaldian azalduko zaie gurasoei euskaraz ez jakin arren seme-alabei -euskaraz dakitenak- nola lagun diezaieketen etxeko lanak eta beste egiten. Hitzaldia Iñaki Eizmendik eta Julio Ibarra kazetariak egingo dute. Azken horrek bere esperientzia kontatuko du. Hitzaldia eguaztenean izango da, 18:30ean, kultura etxean.

> HIRIGINTZA

Bihartik aurrera botako dituzte Gasparreko garajea eta Sagarpe elkarteko parra

Gaur hasiko dira makinak Gasparreko garajea botatzen eta gutxi- ra gauza bera egingo dute Sagarpeko parrarekin. Domingo Irala kalearen urbanizazio berriari ekiteko lehen urratsak emango dituzte modu horretan. Hala eta guztiz ere, kalea urbanizatzeko lanak Errege ostein hasiko dira. Lehen fasearekin hasiko dira, hain justu Telenonicako aldapan hasi eta Irizar pasealekuraino doan tartean. Esandako bi eraikinak botatzeaz gain espaloiak kendu egingo dituzte, eta kale guztia altuera berean jarri.

> EUSKAL PRESOK

Antxon Sasiain bergararra epaituko dute gaur, astelehena, Madrilgo Auzitegi Nazionalan

Antxon Sasiain bergararra epaituko dute gaur Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Sasiainek 1997ko martxoan egin zuen alde herri- tik eta 2002ko irailean atxilotu zuten Frantzian. Hango hainbat espetxetan egon eta gero 2005eko urrian estraditatu zuten, Askatasunak adierazi duenez, "horretarako froga bakarra izanik beste kide batzuei torturapean ateratako adierazpenak". Gaur egun Soto del Real espetxean dago eta Askatasunak aurrera dudenez 96 urteko kartzela-zigorra eskatuko dute harendako.

OÑATI > CORAZON DE ENCINA ELKARTEKO KIDEEK PRESTATU ZITUZTEN OGI-MAMIAK

Extremadurako jakiak dastatzera jende ugari hurbildu zen atzo Herriko plazara

Ogi-mamiez gain urdaiazpiko pintxoak eta gazta pintxoak saldu zituzten plazan

Gabon gauean Los Chambras taldeak kontzertua eskainiko du elkartearen egoitzan

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Arrasateko Corazon de Encina elkarteak eta Oñatiko Udalak antolatuta, Extremadurako jai ospatu zuten atzo goizean Oñatin.

DASTATZEKO, OGI-MAMIAK

Arrasateko elkarteko 15 lagun joan ziren Oñatira eta hango herritarren laguntzarekin ogi-mamiak prestatu zituzten. Guztira 800 arrazio inguru banatu zituzten Oñatiko plazan. Pedro Viva, Corazon de Encina elkarteko lehendakaria, pozik zegoen: "Egin duen eguraldia ikusita jende asko hurbildu da plazara Extremadurako jakiak dastatzera".



OGI-MAMIAK Udaletxeko arkupeetan egokitu zuten ogi-mamiak egiteko sukaldia.

JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiko plazan Extremadurako beste hainbat jaki dastatzeko aukera ere izan genuen. Euro eta erdiren trukean, urdaiazpiko pintxoak eta gazta pintxoak

jarri zituzten. Pintxoak samur sartzeko, Cañameroko ardo beltzaren eta Esparragosa de la Sere- nako ardo gorriaren laguntza izan zuten bertaratutakoek.

BELENA ETA KANTUAK

Hilaren 24an, Extremadurako elkarteok belena jarriko dute elkartean. Gainera, Los Chambras taldeak abestu egingo du.

> HEZKUNTZA

Elkar Hezik Zilarrezko 'Q'-a eskuratu du

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak Zilarrezko Q-a eskuratu du. Modu horretan, ikastetxean garatutako kudeaketaren kalitatea saritu nahi izan du Euskaliti erakundeak.

Bihar, martitzena, jaso- ko du saria, Donostiako Kur- saal jauregian egingo duten galan. Elkar Hezik ordez- kariak Tontxu Campos Hez- kuntza sailburuaren eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik jasoko dute saria.

> HEZKUNTZA

Zuazola-Larraña institutuak kultura astea antolatu du

Barikuan hasi eta hilaren 22ra ateko ekitaldi sorta antolatu dute kultura astearren barruan. Besteak beste, gaur, astelehena, Alberto Iñurrategiren *Gure Himalaia* filma emanago dute, 19:30ean, eskolako aretoan. Horrez gain, bertso saioa ere izango dute eguaztenean. Amets Arzallus, Sustrai Kolina eta Partxi eta Pasku oñatiarrek jardungo dute, 12:00etan, eskolako areto nagusian.

ARETXABALETA > BEINKE ELKARTEAREN 20. URTEMUGA

Herritarrak batzeko ere balio izan zuten ekitaldiek

Elkartearen sortzaile, bazkide eta herritarrak batu ziren afaltzeko; guztira 106 lagun

Jasone Gorrotxategiri omenaldia egin zioten 20 urteotan egindako lan eskergagatik

MONIKA BELASTEGI > ARETXABALETA

Ezin hobeto atera zen egubakoitzean Beinke elkartearen 20. urtemuga ospatzeko antolatutako jaia. Loramendikoak pozik daude erantzunarekin eta balorazio oso positiboa egin dute. Eta ez da gutxiagorako; izan ere, arratsaldean herriko plaza leporaino

beteta zegoen buruhandiak atara orduko. Txokolatea ere berehala bukatu zen. 25 litro txokolate prestatu zituzten eta 20 minutuan edanda ziren 25ak. Loramendikoek esan dutenez, 300 bat lagunek hartu zuten txokolate bero-beroa egubakoitz arratsalde hotzari aurre egiteko.

Gainera, Beinke eta Loramendi elkarten historia kontatzen duen *performance*-a ikusteko aukera ere izan genuen. Eta batek baino gehiagok majo egin zuen barre.

106 LAGUN AFALTZEKO

Aspaldi elkar ikusi gabe zeuden hainbat herritarrek iluntzeko txikiteoan egin zuten topo. Hainbat urtez elkartean jardundakoa ziren gehienak, eta hizketarako gairik ez zitzaizkien falta izan. Horren ondoren, Taberna Berrin batu ziren elkartearen sortzaile, bazkide eta herritarrak afaltzeko. 106 lagun batu ziren afaritara, hain justu ere.

Eta arratsaldean barrena egondako giro polita are nabarmenagoa egin zen afarian. Omenaldietarako tartea ere egin zuten. Hain justu, Jasone Gorrotxategiri 20 urteotan egindako lan guztia eskertu nahi izan zioten mahaiaren bueltan batu ziren 106 lagunek, hain justu Beinke eta Loramendi elkarten ibilbidean jardun duten herritarrek.

Urtemuga ospatzeko ekitaldiei bukaera emateko, berriz, elkartearen gaineko ikus-entzuzkoak ikusi zuten eta horren ondoren dantzaldia izan zuten Iñigo Madinabeitia musikariarekin eskutik.

ARETXABALETA

Akordeoi orkestrak diskoa kaleratu du


M.B. > ARETXABALETA

Estreinako diskoa kaleratu du akordeoi orkestrak eta zapatuan aurkeztu zuten herritarren aurrean, parrokiaren egindako emanaldiaren ondoren. *Soinuaz soinu* du izenburua eta bertan jasotako doinuekin erakutsi nahi izan dute "akordeoiarekin musika estilo ezberdinak egin daitezkeela", akordeoi orkestrako kideen esanetan.

15 URTEKO IBILBIDEA

Hain zuzen ere, 15 urte bete dugu datorren urtean Aretxabaletako akordeoi orkestrak eta ibilbide horretan guztian 100etik gora emanaldi egin dituzte. Izan ere, asko izan dira kontzertu horietako zenbaiten ostean diskorik ote dute galdetzeraz hurbildutakoak. Hala, eskari horri erantzuteko asmoz kontzertu programazioa eten eta diskoa grabatzeko prozesuari ekin zioten. Grabatu, berriz, uztailean egin zuten, bi egunetan, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Guztira 18 akordeoilarik eta lau perkusio-jotzailek hartu dute parte, Juanjo Orobengoa zuzendariaren gidaritzapean.

Esan beharra dago *Soinuaz soinu* diskoak 12 euro balio duela eta ez dutela dendetan salgai jarriko. Orkestrak egingo dituen emanaldietan jarriko dute salgai.



Juanjo Orobengoa.

M.A.



DANTZA SAIOA Beinke-Loramendi dantza egin zuten arratsaldean herriko plazan.

MIRARI ALTUBE

ESKORIATZA > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

Ingurumenari eragindako kalteez berbaldia egingo dute Onbide.org taldeko kideek

A.G. > ESKORIATZA

Onbide.org taldeko kideek berbaldia egingo dute eguaztenean, 19:00etan, Inkernu tabernan.

Eibar-Gasteiz autobideak ingurumenean eragindako kalteez eta azpiegitura eraikitzeke orduan gertatzen ari diren irregularitasunez jardungo dute. Horrekin lotuta, kalte eta irregularitasun horien gaineko argazki

erakusketa dute jarrita Inkernu. Onbide.org taldeko kideen esanetan, eraikitze lanetan ez da ingurumen jarraipenik egiten eta, horrez gain, proiektuak berak ere ez ditu kontuan hartu Eskoriatza eta haren inguruaren natura balioa eta ezta nekazaritza arloa ere. Eta Udalaren eta beste hainbat talderen presioagatik proiektuari hobekuntza batzuk

egin bazitzaizkion ere, lanak bete ahala hobekuntzok okertu egin direla gehitu dute: "Hitz bitan, nahi dutena egiten ari dira". Horren guztiaren aurrean, hainbat salaketa jarri dituzte eta itxaropena dute gauzak zuzentzen joango direla. Halako hitzaldiak antolatuta herritarrak kalte eta irregularitasunez jabebarazi nahi dituztela gehitu dute.

> ERRETIRATUAK

Eguenean txistorra-jana izango dute erretiratuek Eskoriatzan

Eguenean, hilak 20, Olazar erretiratuen elkarteko lagunak txistorra-jana egingo dute, 17:30ean hasita. Urteroko ohitura da erretiratuek batzeko merienda egitea. Hala egiten jarraitzen dute, eta aurten ere hala egingo dutela jakinarazi dute. Txistorra-jana herriko erretiratuen elkarteko bazkide guztiendako da, baina derrigorrezkoa izango da urteko kuota ordainduta izatea.

> ELKARTASUNA

Saharrendako laguntza batzen ari da Aretxabaletako Iesbaa

Aurten sortu duten Sahararen aldeko Iesbaa elkarteak *Karabana 2007: piztu itxaropena* egitasmorako janaria eta dirua batzen dabil Aretxabaletan. Urtarrilaren 9ra arte batuko dute egongo da abian egitasmoa. Hori horrela, kutxa jarri dute Ilargi plazan dagoen Eroskin janaria batzeko. Aurten, dilistak, arroza, atuna eta konpresak batu nahi dituzte.

ANTZUOLA > ALFONTSO UGARTE MUSIKARIA

Alfontso Ugarteren bizitza eta obra "azaleratzea" da bekadunen nahia

Julene Azumendik eta Irune Martinezek egingo dute haren bizitza eta lana batuko dituen lana

Antzuolako eta Lizarrako udalek kaleratu dute beka, Ugarte ahanzturatik berreskuratzeko

MONIKA BELASTEGI > ANTZUOLA

Barikuan eman zuten aditzera Alfontso Ugarte (Antzuola 1879-Lizarrako 1937) musikariaren bizitza eta obra aztertu eta jasotzeko lana nork egingo duen. Antzuolako eta Lizarrako udalek sortutako beka da lanaren oinarri eta Eusko Ikaskuntzak editatu du. Hain justu, Irune Martinezek eta Julene Azumendik hartu dute musikariaren biografia egin eta haren obra katalogatzeko ardura.

Pozik azaldu ziren biak bari-kuko aurkezpenean, eta baita eskertuta ere, udalek, Eusko Ikaskuntzak eta Ugarteren familiak eurengan jarritako konfiantzagatik. Bekaren sustatzaileek, bestalde, bi neskek egingako memoriari darion sentsibilitatea azpi-

marratu zuten. Baita Ugarteren familiarekin duten gertuko harremana ere. Bost hilabete barru bukatuko dute lana.

AHANZTURATIK BERRESKURATU

Jose Angel Zabalo Antzuolako alkateak azaldu bezala, "ahantzurara eroandako gauza bati bizitza ematea" da bekaren helburua, eta horretan Lizarrako eta Antzuolako udalek elkarlanean jardun izanaren garrantzia azpimarratu zuen.

Lizarrako Udaleko ordezkariak ez zuten ekitaldian egotarik izan, baina bai Ugarteren senitarteko diren Navascues familiako hainbat ordezkariak. Haren bilobek aitaita zenaren figura ekarri zuten gogora Olanaren etxean bertaratutako artean.



AGINTARIAK ETA FAMILIA Jose Angel Zabalo eta Jokin Navascues. MONIKA BELASTEGI

Antzuolako abesbatzak ere izan zuen lekua ekitaldian. DVDan Ugarteren salbea abesten entzun

genituen. Gainera, musikariaren bi Gabon kantu aurkitu dituztela esan zuten, eta ikasten dabiltzala.

Josemari Velez de Mendizabalek moldatu du lana; hilaren 23an egingo dute kultura etxean, 20:00etan

A.G. > ARAMAIO

Datorren zapatuan, hilaren 23an, Arrasateko Doke antzerki taldeak Pedro Ignacio de Barrutia herritarraren *Acto para la Noche Buena* antzezlan eskainiko du. Emanaldia kultura etxean izan-

ARAMAIO > DOKE ANTZERKI TALDEAREN ESKUTIK

Pedro Ignacio de Barrutiaren obra zapatuan eskainiko dute

go da, 20:00etan; antzezlanak ordu bete iraungo du.

EUSKARAZKO LEHENENGO OBRA

Acto para la Noche Buena Hego Euskal Herrian ezagutzen den euskarazko lehenengo antzerki

lana da. Obra XVIII. mendekoa da eta oraintsu arte bi aldiz bakarrik taularatu da: lehenengoz 1960ko hamarkadan eta bigarrenez 1982an. Izan ere, aste bukarran, Arrasateko Amaia antzokian bi emanaldi arrakastatsu

egin dituzte Doke antzerki taldekoek.

Jose Mari Velez de Mendizabalek moldatu du testua, XVIII. mendeko euskara ikusleentzat ulergarria izan dadin. Hitzordu paregabea Gabon egunetarako.

Jaiotza jarri zuten Gatzagan ume eta gurasoek

Zapatuan jaiotza jartzen jardun zuten Gatzagan herriko umeek, gurasoek lagunduta. Elizpean jarri zuten. Egurrezko taulekin etxola egin, eta Maria, Jose, haurra... lastoz egin zituzten. Olentzerorik ere ez da falta. Bestalde, gaur, astelehena, eta eguenean egingo dituzte pandero eta kantu entseguak, 17:30ean, Gabon egunean baserri baserri kantuan aritzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA

Zapatuan erabakiko dira boleta irabazleak

A.G. > ELGETA

Datorren zapatuan jokatu da boleta txapelketako laugarren eta azken jardunaldia. Hala, jardunaldi horren ostean erabakiko dira aurtengo txapelketako irabazleak. Zapatuan jokatu hirugarren jardunaldiaren ondoren honakoa da sailkapen orokorra: Javier Osoro da lehenengoa, zazpi txirlorekin; Sebas Arantzabal bigarren, bost txirlorekin eta Josetxo Monterroso eta Arlindo Almeida parekatuta doaz, lau txirlorekin.

GAZTETXOENTZAKO TXAPELKETAK

Kirol Zerbitzuek boleta, pilota eta paleta txapelketak antolatuta dituzte Gabonetako oporraldietarako, gaztetxoentzat.

Batetik, X. pilota eta paleta txapelketak antolatuta dituzte. Abenduaren 27an, 28an eta 31n jokatu dituzte bi txapelketak 6 eta 16 urteko gaztetxoek. Pilota txapelketari dagokionez, mutikoen jokatu dute; neskek, berriz, paleta txapelketan jardungo dute. Biak pilotalekuan izango dira.

Horrez gain, boleta txapelketa ere izango dute gaztetxoek. Gaur, astelehena, hilaren 23an eta urtarrilaren 5ean jokatu da. Hori ere 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoentzat izango da. Jardunaldiok Elgetako Bola Tokin jokatu dira, 12:30ean.

> ERRETIRATUAK

Txistorra-jana egingo dute Antzuolako nagusiek

Eguenean egingo dute, Santo Tomas eguna ospatzeko. Doan izango dute txistorra eta gero bingo jokoa ere izango dute. Horrez gain, bihar, martitzena, karta txapelketako finala jokatu dute eta parte-hartzaileek afaria ere izango dute 3 euroren truke.

> MUSIKA

Musika Eskolako emanaldia egingo dute Antzuolan

Musika eskolako ikasleek kontzertua egingo dute eguenean, udaletxe osoko bilkuren aretoan. 19:00etan izango da emanaldia eta herritar guztiak daude gonbidatuta gaztetxoena saiora. 30 bat ikasle jardungo dute.

Kirola



> **FUTBOLA**
Mondrak 94. minutuan berdindu zuen Zestoaren kontra > 18



> **SASKIBALOIA**
Aloña eta Bergararen arteko derbian oñatiarrak nagusi > 20



> **ARKU TIROA**
64 tiratzailek hartu dute parte Gipuzkoako txapelketan > 21



> **KROSA**
Aritz Kortabarriak irabazi du Santamasetako krosa > 21

Markel Mendieta nagusi elite mailako txapelketan

Sergio Maiztegi, Josu Viejo, Markel Usobiaga, Mirian Mulas, Alaitz Martinez, Olatz Azkarate eta Itziar Rodriguez izan ziren beste irabazleak

Santamasetako VI. boulder txapelketa jokatu zuten zapatuan Uarkapen

Antolatzaileak pozik agertu ziren zaleek emandako erantzunarekin

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Ikuskizun polita eskaini zuten zapatuan Santamasetako VI. boulder txapelketan parte hartu zuten eskalatzailak. Hala, Uarkape pilotalekura hurbildu ziren ikusleek txaloekin eskertu zuten haiek egindako lana.

60 eskalatzailak hartu zuten parte txapelketan. Parte-hartzaileak adinaren arabera hainbat mailatan banatu zituzten; mutilan hiru maila berezitu ziren: elite maila, herrikoa eta 18 urtetik beherakoak. Neskek ere hiru mailatan banatu ziren: herrikoia, 15 urtetik beherakoak eta 11 urtetik beherakoak.

KANPORAKETAK, GOIZEAN

Zapatu goizean kanporaketak jokatu ziren frontoiko beheko boulderrean. Aipatu beharra dago munduko txapeldun Patxi Usobiaga Uarkapen egon zela zapatu goizean, egiturak izango zituen bideak aukeratzeko. Hala, goizeko eskalatzaila onenak arratsaldeko finalerako txartela eskuratu zuten: elite mailan zortzi sailkatu ziren, herrikoien artean, bederatzi eta 18 urtetik beherako artean, beste bederatzi. Nesken mailatan, partaide guztiak sailkatu ziren finalerako.

FINALAK, FRONTOIAN

Federazioak ekarritako egiturak lau alde zituen; eta laurak erabili ziren zapatuko finalerako.

Hala, maila bakoitzean finalistek hiru bide ezberdin igo behar zituzten. Eta guztira 15 minutu zituzten bidea egiteko. Parte-hartzaile bakoitzak bidea zenbatgarren ahaleginean egi-

ten zuen hartzen zen kontuan puntuak banatzeko orduan; adibidez, bidea lehenengo ahaleginean igoz gero, bost puntu lortzen zituzten; baina bosgarren ahaleginean igota, puntu bakarra.

Arratsaldeko finalak nesken mailekin hasi ziren. Mirian Mulas eta Alaitz Martinez izan ziren irabazleak 11 urtetik beherako artean; Olatz Azkarate, 16 urtekoen artean eta Itziar Rodriguez, herrikoien artean.


18 urtetik beherako mutilen artean, Josu Viejo eta Mikel Usobiaga izan ziren onenak. Halaber, Sergio Maiztegik irabazi zuen herrikoien finala.

ELITE MAILA

Santamasetako boulder txapelketako ikuskizun ederrena, berriz, elite mailako finalistek eman zuten. Ander Lasagabaster, Juan Luis Urkizu, Ander Mendieta, Ibai Urdiruz, Markel Mendieta eta Joseba Saiz izan ziren elite mailako finalistak. Antolatzaileek jarritako hiru bideak egin ondoren, Markel Mendieta lortu zuen puntu gehien. Arrasateko eskalatzailak finaleko hiru bideak egin zituen. Ander Lasagabaster eta Joseba Saiz, aldiz, bigarren tokian sailkatu ziren.

ANTOLATZAILEAK, POZIK

Boulder txapelketa bukatuta, pozik agertu ziren antolatzaile taldekoak: "Parte-hartzaileek maila oso ona erakutsi dute. Gainera, ikusle asko hurbildu da txapelketa ikustera, 200 sarrera saldu ditugu. Hortaz, oso pozik gaude", esan zigun antolatzaile taldeko Mikel Castillok.



INDARRA Parte-hartzaileek eskuak erabili zituzten bideak egiteko.

BIGARREN ERREGIONALA



OHOREZKO GAZTEAK



LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK



OHOREZKO KADETEAK



PREFERENTE MAILA

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Ibon Gonzalez, Jon Torres, Akaitz Garai, Gari Dublan, Iban Espinosa, Iban Lopez, Kepa Azpiluega, Jon Iregi eta Mikel Mondragon. Erdiko ilaran: Javier Etxebarria (delegatua), Gaizka Heriz, Haritz Igartua, Ekiotz Alustiza, Imanol Bellido, Aure Calzon (bigarren deitua), Jon Iregi eta Mikel Mondragon. Beheko ilaran: Mikel Sanchez, Igor Arenatza, Joseba Gonzalez, Gorka Iturbe, Iñaki Urdanpilleta.

kartea 06-07 (Futbol saila)



LEHENENGO MAILAKO KADETEAK



OHOREZKO INFANTILAK



INFANTIL TXIKIAK



ALEBINAK



...kue eta Oinatz Agirre.
...garren entrenatzailea), Felix Recio (entrenatzailea), Xabi Lasagabaster (atezainen entrenatzailea), Ruben Leonardo, Erik Gar-
...Jribetxebarria, Iker Orueta, Raul Sanchez, Igor Arriaga eta Imanol Rodriguez.

Mobiliario
ARENAZA



PREFERENTE MAILA > LEHEN ZATI BIKAINA JOKATU ZUEN UDA-K

UDAK liderra menderatu zuen Igor Arriagaren golari esker

UDA

1-0

ZARAUTZ

UDA > Gaizka, Iñaki, Arkaitz, Ruben, Gor-ka, Arenatza, Iker (Ruben, 70. min.), Haritz, Arriaga (Gartzia, 76. min.), Lopez eta Espinosa (Gonzalez, 86. min.).

Zarautz > Jaka, Del Rey, Aranguren (Nogales, 45. min.), Apalategi, Errasti, Ruiz, Zubielki, Agoles, Alguacil (Aranguren, 82. min.), Arregi eta Veje (Arroti, 51. min.).

Epailea > Iban Lopez jauna.

Preferente mailako lider Zarautzek denboraldiko hirugarren partidua galdu zuen atzo Aretxabaletan

MIREIA BIKUÑA> ARETXABALETA
Gabonetako oporrak hartu aurreko azken norgehiagoka jokatu zen atzo Ibarra futbol zelaian. UDAk preferente mailako liderraren aurka jokatu behar zuen. Edozelan ere, Felix Recioeren taldeak partidu borobila jokatu zuen.

Zarautz da, oraingoz, preferenteko talderik indartsuena, liderra. Bada, atzo denboraldiko hirugarren partidua galdu zuen Zarautzek, Aretxabaletan.

LEHEN ZATIA, BIKAINA

Partiduaren lehen zatia, aspaldiko partez, UDAk jokaturako zati osoena izan zen; inongo zalantza barik. Aretxabaletako taldeak guztia egin zuen ondo. Defentsa-



GOL AUKERAK Zarautz taldeko atezainak lan handia izan zuen atzoko partiduan.

JOSETXO ARANTZABAL

ko lerroak lan itzela egin zuen. Halaber, erditik gorako jokalariek ere joko ona egin zuten. Hegaletatik jokaldi asko egin zituzten. Horregatik guztiagatik, gol aukera asko sortu zituen etxeko taldeak. Haietako batean lortu zuen gola Igor Arriagak, 31. minutuan.

Hala, abantailarekin iritsi zen Felix Recioeren taldea atsedenera: 1-0.

BIGARREN ZATIA

Bigarren zatiko ordu laurdena bete orduko partidua erabakita uzteko aukera garbia izan zuen UDAk. Iker Oruetak ez zuen asma-atezainaren aurrean.

Azkeneko minutuetan, berriz, urduritasuna nagusitu zen UDAko jokalaria eta zaleen artean. Baina Zarautzek apenas izan zuen gol aukerarik.

ENTRENATZAILE IKASTAROA

Bestalde, UDAk futbol entrena-tzaileendako hasierako ikastaroa antolatu du. Abenduaren 28an, 29an eta 30ean eta urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Izena emate epea abenduaren 24an amaituko da. Hain zuzen ere, kirol etxean edota goinasport@goinasport.com helbidean eman daiteke. Ikastaroa doan da.

PREFERENTE MAILA > AZKEN MINUTUETAN ERABAKI ZEN

Berdinketaren gola, 94. minutuan

Josu Zubikaraik lortu zuen berdinketaren gola luzapeneko laugarren minutuan

MIREIA BIKUÑA> ARRASATE

Zapatuan Atxabalpen Mondrak eta Zestoak jokaturako partidua azken minutuetan erabaki zen. Zestoak bi goleko errenta zuen markagailuan (0-2). Mondra, kemen handiarekin, gai izan zen lehia berdintzeko. Igor Gordobil-ten taldeak, 89. eta 94. minutuetan egin zituen bi golak. Laspiur eta Josu izan ziren golegileak.

MONDRA, HAMARREKIN

Partidua oso zail jarri zitzaion Mondrari, epailek Heriz jokalaria-ri txartel gorria erakutsi zionean. Ordurako etxeko taldea 0-1 galtzen zihoan. Zailagoa jarri zen partidua Zestoak 63. minutuan bigarrena egin zuenean.

Arrasateko taldeak ez zuen amore eman eta bukaeran, baina puntu bat eskuratu zuen.



ARRISKUA Zestoak arrisku asko sortu zuen Mondraren atean.

JOSETXO ARANTZABAL

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	32	15
2. Anaitasuna	26	15
3. Mondra	26	15
4. Berio	25	15
5. Hernani	24	15
6. Touring	23	15
7. Zestoa	23	15
8. Ordizia	21	15
9. UDA	20	15
10. Aloña Mendi	19	15
11. Pasaia	19	15
12. Trintxerpe	19	15
13. Idiazabal	17	15
14. Mutriku	15	15
15. Urola	14	15
16. Hondarribia	14	15
17. Mutriku	13	15
18. Martutene	12	15

Emaitzak	
Uda-Zarautz	1-0
Trintxerpe-Aloña Mendi	1-2
Mondra-Zestoa	2-2
Idiazabal-Aurrera	1-0
Berio-Ordizia	4-1
Anaitasuna-Hondarribia	1-1
Touring-Hernani	1-1
Mutriku-Pasaia	3-1
Urola-Martutene	2-2

Hurrengoak	
Zarautz-Trintxerpe	
Aloña Mendi-Mondra	
Zestoa-Idiazabal	
Aurrera-Berio	
Ordizia-Anaitasuna	
Hondarribia-Touring	
Hernani-Mutriku	
Pasaia-Urola	
UDA-Martutene	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONAL	
Bergara-Lagun Onak	1-1

BIGARREN ERREGIONALA	
UDA-Eibartarrak	1-0
Soraluze-Elgeta	4-0
Urki-Antzuola	3-2
Gazteak-Mondra	2-1

EMAKUMEZKOAK	
Mondra-UDA	2-1
Aloña-Gasteiz Cup	2-4
BTLS (atsedena)	

OHOREZKO GAZTE MAILA (IGOERA)	
Beasain-Mondra	4-0
Vasconia-UDA	0-1
Elgoibar-Aloña	2-3
Hondarribia-Bergara	2-2

GAZTEAK, LEHENENGO MAILA	
Ilintxa-Antzuola	9-0
UDA-Urki	0-1
Eibartarrak-Arrasate	6-0
Soraluze-Bergara	0-0

OHOREZKO KADETEAK (IGOERA)	
UDA-Touring	3-1
Bergara-Zarautz	2-2

OHOREZKO KADETEAK (KOPA)	
Aloña Mendi-Lagun Onak	3-0
Arrasate-Hernai	1-0

KADETEAK, LEHENENGO MAILA	
Bergara-Soraluze	0-0
Ilintxa-UDA	0-0

NESKAK KADETE MAILA	
Aloña Mendi-Beasain	4-0
Arizmendi Aretxabaleta (atsedena)	

OHOREZKO INFANTILAK (KOPA)	
Touring-Arrasate	3-2
Aurrera-Aloña	2-1

INFANTILAK	
Bergara-Mutriku	2-1

EUSKADIKO PREFERENTEA > SENIOR MAILAKO NESKAK

Hasiera onik ez izan arren, bigarren zatian erreakzionatu zuten Aloñakoek

Bi taldeentzat izan zen garrantzitsua zapatuan jokaturako partidua

Etxekoek gelditzen zaizkien partidu guztiak irabazten saiatu behar dute, datorren denboraldian A mailan jokatu nahi badute, behintzat

VERKOL ALOÑA

26-20

JARRILLERAS

Verkol Aloña > Zabaleta, Zuazolazigorraga, Goñi, Larrañaga (3), Altuna (2), Unamuno (4), Zubeldia (3), Usabiaga, Sanchez (2), Elortza, Aretaga (8), Manuel (3) eta Olabarria (1)

Jarrilleras > Fortes, Buiz (1), Francisco, Ballester (1), Ortega (7), Gabantxo (3), Rogue (5), Vitores (1), Lopez, Gomez eta Sacinero (2).

Bost minuturo golak > 1-2; 3-5; 5-7; 7-9; 12-10; 12-11; 13-13; 16-15; 18-16; 20-18; 23-18 eta 26-20.

JASONE ZABALA> OÑATI

Partidu garrantzitsua irabazi zuten Verkol Aloñako neskek zapatuan.

Aurkaria Portugaleteko Jarrilleras taldea izan zen. Sailkapenean, bi taldeak daude Euskadiko Txapelketako A mailara igotzeko lehian, eta partidua intentsitate handikoa izan zen. Lehen zatian, Maitane Ruizek entrenatzen dituen neskei kostea egin zitzaizen partiduan sartzea.

DEFENTSA IZAN ZEN GAKOA

Portugaletekoak, bai eraso zein defentsan, joko ona egiten ari ziren, eta etxekoek ez zuten asmatzen euren joko bizia egiten. Hala,



TALDE LAN ONA. Taldeko lana ez ezik, Olabarriak pibote postuan egin zuen lana ere; ona izan zen.

JOSETXO ARANTZABAL

markagailuan lehen zati guztian atzetik joan ziren, nahiz eta bizkaitarren errenta inoiz ez zen izan bi gol baino gehiagokoa.

Etxekoak, 15. minutuan, 5-1 defentsa egiten hasi ziren bizkaitarren eraso jokoa gelditzeko asmoz, eta bere fruitua eman

zuen. Baloiak lapurtzen eta ondo mugitzen hasi ziren etxekoak. Portugaletetik, hura ikusita, Aloñako Olatz Manuel jokalaritari

defentsa mistoa egiten hasi ziren. Etxekoak, orduan, baloia hegaltara ederki zabaltzen hasi ziren eta jokaldi bikainak burutu zituzten. Aloñak bere defentsarekin jarraitu zuen. Eta ordu arte markagailuan atzetik joan baziren ere, 25. minututik aurrera agintzen hasi ziren markagailuan.

Bigarren zatian, Portugaletekoek nekeak etxekoek kontrarasoak ekarri zituen, eta orduan erabaki zen partidua. Epaileak txartel hori dezente atera zituen, bizkaitarrek ezin baitzuten etxekoek joko azkarra gelditu. Portugaleteren defentsa gogorra ez zen nahikoa izan markagailuan hurbiltzeko eta garaipena etxean gelditu zen. Golegile nagusia Arteaga izan zen, zortzi eginda.

emaitzak

MAILAZ MAILA

BIGARREN MAILA NAZIONALA

Portugalete-Ford Mugarri 31-27

EUSKADIKO GOREN MAILA

Verkol Aloña-Jarrilleras 26-20

LEHENENGO TERRITORIALA

Urnietako-Arrasate eskubaloia 36-27

Leizaran-Bergara 18-33

JUBENILAK MUTILAK

Urola-Bergara 22-28

Amenabar-Aloña Mendi 31-22

JUBENILAK NESKAK

Leizaran-Verkol Aloña 14-16

KADETE MUTILAK

Donibane-Gatz Museoa Jakion 27-24

Usurbil-Aloña Mendi 34-37

KADETE NESKAK

Ereintza-Arrasate Atzeratuta

Verkol Aloña-Zarautz 15-29

> LEHENENGO TERRITORIALA

Bergarrek partidua gaizki hasi zuten arren, buelta eman zioten

Bergarak atzo 18-33 irabazi zuen Andoaingo Leizaran taldearen aurka.

Partidua ez zuten ondo hasi bergarrek, baina lehen zatian egindako 10-1eko partzialarekin partidua erabakita utzi zuten. Bergararren aldetik, taldeko jokalariek guztiek jokatu zuten, eta guztiek egin zuten golen bat partiduan zehar.

> LEHENENGO TERRITORIALA

Arrasatearrek ezin izan zuten garaipena ekarri Urnietako partidutik

Arrasateko taldeak Urnietaren aurka jokatu zuen Gabonetako oporren aurreko azken partidua, eta galdu egin zuen, 36-27.

Urnietako sailkapenean behan dagoen taldea da, baina arrasatearrek baino esperientzia handiagoko jokalariek dira, eta hori nabaritu zen zapatuan. Oraindik ere mailari eusteko aukerak hortxe jarraitzen du.

> EUSKADIKO TXAPELKETA

Arrasatearrei dena gaizki atera zitzaizen bizkaitarren aurka

Arrasateko taldeak ezin izan zuten garaipenik ekarri Portugaletetik, eta 31-27 galdu zuen zapatuan jokaturako partiduan.

Hasiera-hasietik ez ziren jokoan sartu Beñardo Balerdiren mutilak, eta bai erasoan eta baita defentsan ere, bizkaitarrek gehiago izan ziren. Urtarrilaren 14an izango dute hurrengo partidua Egiaren aurka.

> GAZTE MAILA (NESKAK)

Lehen 15 minutuetako partzialak eman zion garaipena Aloñari

Zapatuan jokaturako partiduan 14-16 irabazi zioten oñatiarrek Leizarani. Lehen 15-20 minutuetan, 0-8ko partziala egin zuten Aloñakoek eta atsedena 6-10 heldu ziren.

Bigarren zatian, berriz, bi taldeen aldetik ez zen egon ez eraso ezta defentsarik ere. Oñatiarrek azken bi minutuak lau jokalarirekin jokatu zituzten.

> GAZTE MAILA

Partidu parekatua jokatu, Bergarak Urolari irabazi

Zapatuan jokatu zuen Bergarak Zumarragan Urolaren aurka, eta 22-28 irabazi zion.

Partidua nahiko parekatuta joan zen, baina bergararrak Urolakoak baino hobeto aritu ziren defentsan. Izan ere, bost goleko errenta lortu zuten Lander Juaristiren mutilek, eta errenta mantentzen jakin izan zuten partidua amaiera arte.

> SENIOR MAILA (IGOERA FASEA)

Errepaso ederra Aloñak Bergarari

Bergararrek hasiera ona izan zuten, baina oñatiarrek erreakzionatu, eta hirugarren laurdenean egindako presioak garaipena eman zien

ALOÑA MENDI

94-73

BERGARA

Aloña Mendi > Anduaga (2), Madariaga (23), Otamendi (5), Zabaleta (15), Zabaleta I. (10), Amado, Blanco (17), Lizarralde (3), Cruickshank (9), Anton, Mendiola (4) eta Aranburu (6).

Bergara > Aizpurua (9), Ancin (3), Morais (13), Arteaga, Murillo, Beitzegi (8), Ugarte (7), Olaetxea (8), Iñarra (4), Fernandez eta Herzog (19).

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 22-13. Bigarren laurdena: 17-20. Hiru-laurdena: 27-11. Laugarren laurdena: 28-29.

JASONE ZABALA > OÑATI

Igoera faseko bigarren partidua jokatu zuten Aloña Mendi eta Candy Bergara taldeek.

Lehen laurdenean, Aloña ez zen oso fin atera eta Bergarakoek lehenengo bi minutuetan 0-5eko partziala egin zieten etxekoei. Hura ikusita, etxekoen entrenatzaileak berehala eskatu zuten hutsarte, eta momentu

hartan hasi ziren erreakzionatzen: hiru minutuan 10-0eko partziala egin zuten. Aldea hamar punturen bueltan mantendu zuten oñatiarrek.

Bigarren laurdenean, bergararrak abantaila murrizten saiatu ziren, eta defentsa gogortu egin zuten, baina atsedenaldira Aloñakoak joan ziren sei puntuko abantailarekin: 39-33.

HIRUGARRENK ERABAKI

Bigarren zatia guztiz hankaz gora jarri zuen etxeko taldeak, bai jokoan eta baita markagailuan ere. Hirugarren laurdenean, berriz, oñatiarrek kantxa guztiko presio defentsa egin zuten, eta lau minutuan 13-0eko partziala egin zuten, eta 15 puntuko abantailarekin jarri ziren aurretik. Bergarakoak etxekoen defentsa nola gainditu ez zekitela zebiltzan, eta baloi ugari galdu zuten, ezin baitzuten oñatiarren presioa hautsi. Etxekoek egoera hura aprobetxatu zuten kontraerasoak egiteko. Aipatu behar da epaileek partidu guztian 68 falta adierazi zituztela (34 talde bakoitzaren



PARTIDUAREN GAKOA Hirugarren laurdenean erabaki zen.

JOSETXO ARANTZABAL

rentzat). Bada, hirugarren laurdeneko abantaila harekin, etxekoak lasaitu egin ziren, eta errazago jokatzen hasi ziren. Bergararrek, aldiz, lan zaila zuten markagailuan zuten desabantaila txikiagotzen. Laugarren laurdenerako, Bergarak amore eman zuten, eta partiduen azken hamar minutuetan ez zen defentsarik ikusi ez Aloña ezta Bergarako jokalarien aldetik, eta, hala,

puntu dezente sartu ziren azken laurdenean (28-29). Azkenean, etxekoek aldea handiagotu egin zuten eta 23 puntuko diferentziarekin irabazi zuten.

Hain zuzen ere, eta orain arte bi partidu jokatuta, bai bergararrak eta baita oñatiarrek partidu bat irabazita eta beste bat galdua daude sailkapenean. Gabonetako oporretatik bueltan ikusi beharko da zer gertatzen den.

> LEHENENGO MAILA

Logroñon galdu zuen Mugarrik

VENTANAS LEON

67-60

MUGARRI ALKESA

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Tentsio txikiko partidua jokatu zuten Ventanas Leon eta Mugarri Alkesa taldeek zapatuan Logroñon. Lehen faseko azken norgehiagoka zen; sailkapenerako baliorik ez zuena.

Arrasateko taldeak bi baja garrantzitsu izan zituen zapatuan: Gorka Kintanak eta Iñigo Biainek ez zuten jokatu. Halaber, hasierako bostekoan garrantzitsuak diren Jagoba Gamarra eta Gorka Alartziak minutu gutxi jokatu zituzten. Hala, gazte mailako jokalaririk Imanol, Beñat eta Antxonek partidu osoa jokatu zuten.

Izan ere, partidu oso txarra jokatu zuen Mugarri Alkesak. Edozelan ere, eskura izan zuen garaipena, amaitzeko bi minutu falta zirela bi puntuko desabantaila bakarrik zuen-eta.

IGOERA FASEA

Bada, lehen fasea amaituta, oporrak hartuko ditu Arrasateko taldeak. Igoera fasea urtarrilaren 13an hasiko dute. Hamabi partidu jokatuko ditu Mugarri Alkesak igoera fasean.

GIPUZKOAKO LIGA > SENIOR MAILAKO NESKAK

Hirugarren laurdenean galdu zuen Eskoriatzak

Tarte hartan 7-21eko partziala egin zuen Añorgak zapatuko partiduan

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

Eskoriatza eta Añorga taldeek zapatu arratsaldean Intxaurtxueta kiroldegian jokatu zuten partidua hirugarren tartearen erabaki zen. Laurden hartan etxeko taldeak zazpi puntu bakarrik lortu zituen. Eta Añorga taldek tarte zabaldu zuen markagailuan.

Hala, denboraldiko bigarren partidua galdu zuen Eskoriatzako senior mailako taldeak.

MARKAGAILUAN ALDAKETA ASKO

Eskoriatza eta Añorga taldeek jokatutako partidua nahiko parekatua izan zen hasierako minututik. Lehen laurdenean izandako parekotasuna, baina, bigarren laurdenean etxeko taldeak defentsan oinarritu zuen bere lana; banakako eta zonakako defentsak erabili zituen Eskoriatzak, eta aldearekin iritsi zen atsedenera: 22-16.

Izan ere, partidua hirugarren laurdenean erabaki zen. Etxeko taldeak ez zuen defentsa onik egin. Halaber, Añorgak kanpoko jaurtiketa onak egin zituen. Horregatik guztiagatik, Añorgak 7-21eko partziala egin zuen.



ERREBOTEA Añorgak lan hobea egin zuen errebotean.

JOSETXO ARANTZABAL

Edozelan ere, markagailuan desabantaila izan arren, Eskoriatzako neskek aukerak izan zituzten partidua irabazteko, baina une erabakigarrienean urduri jarri ziren.

GABONETAKO OPORRAK

2006ko azken partidua jokatuta, Eskoriatzak oporrak hartuko ditu. Gabonetan entrenamenduak egingo dituzten arren, txapelketara urtarrilaren 13an itzuliko dira.

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Ventanas Leon-Mugarri Alkesa 67-60

SENIOR MUTILAK

Aloña-Candy 94-73

SENIOR NESKAK

Bilintx-Aloña Mendi 86-22

Eskoriatza-Añorga 41-50

GAZTE MUTILAK

Mugarri Alkesa-Easo B 79-53

Goierri-Aloña Mendi 58-65

GAZTE NESKAK

Txirrita-Lithapar 36-52

Eskoriatza-Lasarte 64-28

KADETE MUTILAK

Ford Mugarri-Goierri 102-50

Construcciones Alkesa-Easo Basoa51-59

Aloña Mendi-Haurtzaro 61-28

Bergara-Erroibide 64-36

KADETE NESKAK

Atco. Sn.Sn.-Eskoriatza 70-24

KROSA > 29. SANTAMASETAKO KROSA

Aritz Kortabarria eta 'Azken pote' irabazle

Aritz Kortabarriak irabazi du bigarren urtez jarraian Santamasetako 29. krosa

Guztira 140 parte-hartzaile aritu ziren atzo Arrasaten korrika egiten

JASONE ZABALA > ARRASATE

Atzo jokatu zen Arrasaten Santamasetako krosa. Aurtengoarekin 29. edizioa izan da, eta baita Enrike Kabiketaren IV. memoria ere.

Goizean goiz, 11etan hasita, gaztetxoek hartu zuten parte, eta 40 bat neska-mutilek zortzi probatan jardun zuten.

Txikien ondoren, nagusien txanda etorri zen. Proba hasi aurretik, Jesus Maria Balantzategi atletismoko epaile zenarengatik minutu bateko isilunea gorde zen. Guztira 82 parte-hartzaile izan ziren, mutilen zazpi talde eta nesken bi taldetan banatuta.

Egin beharreko ibilbidea ondorengoa izan zen: Portaloitik hasi, Maalatik jarraitu, Muxibarreko bidegurutzeraino, handik arbolapetara, gero Olarretetik pasa, handik Portaloir

Sailkapena

Mutlak

1. 'Azken pote'	71 puntu
2. 'Presoak etxera'	81 puntu
3. 'Txiklana'	86 puntu
4. 'Aurrera bolie'	87 puntu
5. 'Abenduak 20an'	140 puntu
6. 'Trikimasa'	153 puntu
7. 'Udalaitz'	252 puntu

Neskak

1. Oberenak	171 puntu
2. Tipi-Tapa	211 puntu

eta amaiera plazan izan zuen. Banakako irabazlea Aritz Kortabarria izan zen, 20:48 denborarekin; bigarren Javier Irazabal sailkatu zen, 21:16 denborarekin, eta hirugarren Iker Sarabia izan zen, 21:20 denborarekin. Emakumeetan bi taldetan banatu ziren: senior mailan bi



IRABAZLEA Pasa den urtean bezala, bigarren urtez irabazi du Aritz Kortabarriak Arrasateko proba.

JOSETXO ARANTZABAL

parte-hartzaile izan ziren, lehen sailkatua Lur Sanpedro izan zen, 30:43 denborarekin, eta bigarren Maitane Zabalo, 36:56 denborarekin. Beteranoetan lehena iazko irabazle Mari Fran Alonso izna zen, 26:04 denborarekin; bigarren Maria Jesus Velasco izan zen, 26:45 denborarekin,

eta hirugarren Yolanda Perez de Arenatza izan zen, 28:57 denborarekin.

BILDOTSA 'AZKEN POTE'-RENTZAT Taldeka, mutiletan onenak *Azken pote* taldekoak izan ziren, 71 punturekin, eta saritzat zegoen bildotsa haiek eraman zuten;

bigarren *Presoak etxera* taldekoak izan ziren, 81 punturekin; eta hirugarren *Txiklana* taldea izan zen, 86 punturekin. Nesken taldeei dagokienez, bi talde aurkeztu ziren, eta lehen postuan *Oberenak* taldea sailkatu zen, 171 punturekin, eta bigarren *Tipi-tapa* taldea 211 punturekin.

ARKU-TIROKETA

64 tiratzaile Gipuzkoako arku-tiroketa txapelketan

Miguel Urkia, Juan Mari Urretabizkaia eta Ildefonso Sanchez izan ziren hiru modalitateetako irabazleak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Zubikoa kiroldegiko kantxan jokatu zen atzo Gipuzkoako arku-tiroketa txapelketa. Ordizia, Jaurti (Donostia), Sarta (Elgoibar), Axei (Hondarribia), Gezi Bat (Bergara) eta Txanxiku (Oñati) elkarteetako 64 tiratzailek hartu zuten parte txapelketan. Bi modalitateetan lehiatu ziren parte-hartzaileak: doitasun jaurtiketan eta jaurtiketa tradizionalan. Halaber, doitasun jaurtiketan, arku biribildua eta arku konposatua erabili

zituzten. Doitasun jaurtiketa egin zutenek 18 metrora zegoen itua (diana) erabili zuten. Jaurtiketa tradizionala egin zutenek, berriz, animalia itxurako hiru dimentsiokoak erabili zituzten. Bakotzak 60 gezi erabili zituen.

IRABAZLEAK

Arku biribilduarekin, Donostia-ko Miguel Urkia gailendu zen. Arku konposatuaren modalitatean, Juan Mari Urretabizkaia (Legazpi) irabazi zuen. Halaber, maila hartan Fernando Markina bergararra laugarren tokian sailkatu zen. Azkenik, arku tradizionalarekin, Ildefonso Sanchez ordiziarra nagusitu zen.

Fernando Markinarekin batera, Fernando Karasatorre (Bergara), Antonio Vidriales eta Iruñe Lacalle (Aretxabaleta) eta Candido Remesal, Rafa Ugarte eta Gorka Bikuña (Oñati) izan ziren bailarako ordezkariak.



PARTE-HARTZAILEAK 64 tiratzailek hartu zuten parte Gipuzkoako txapelketan.

JOSETXO ARANTZABAL



Volkswagen Caddy



Volkswagen Kombi



Volkswagen LT



Aire-poltsa



Hagunak (lantzak)



Irrati bidezko nabigazio sistema



ESP



Ibilgailu Komertzialak



UDALAITZ S.L.

Gipuzkoa etorbidea 36 • 20500 • ARRASATE
Tel: 943 71 18 70 Faxa: 943 71 18 71



> **ANTZERKIA**
'Acto para la Noche Buena' estreinatu dute Arrasaten > 27



> **MUSIKA**
Arrasate eta Bergarako Musika Eskolen saioak, asteon > 29



> **MUSIKA**
Hora Zulu taldeak emanaldia egingo du hilaren 22an Jam aretoan > 29



> **ELKARRIZKETA**
Fermin Etxegoien kazetariarekin ikus-entzunezko ez jardun dugu > 29

Inalectrik, Little, Little Much, The 5 Twisters eta Anal Bag izan ziren egubakoitzekoak

Ez zen gau erabakigarria izan, baina taldeek lan ona egin zuten

Dagoeneko erabakita dago finala: Aby-Kem, Malenkonia eta Belcebluesek joko dute urtarrilaren 12an

JON BEREZIBAR > ELGETA

Danbakako azken etapa izan zen egubakoitzekoa. Rocka izan zen nagusi azken txanpan, eta gaua ixteaz aurtengo edizioako partaiderik ausartenak arduratu ziren. Hurrengo hitzordua urtarrilaren 12an izango da, Aby-Kem, Malenkonia eta Belceblues taldeekin. Egubakoitzean bertan erabaki zuten epaimahaiak finalerako hirukotea.

Inalectrik atera zen lehena Espaloiko eszenatokira. Gitarra akustikoaz lagunduta, lasai antzean ireki zuen gaua aretxa-baletarrak. Sarrera akustikoa egin eta gero gehitu zitzaizkion laguntzera joandako baxu eta bateria jotzaileak. Rock abesti ondo konposatu eta jantziak aurkeztu zituen Inalectrikerik eta errepertorioan aurrera egin ahala gorputza hartu zuen poliki-poliki hark eskainitakoak.

Patxada osoz hasieratik agertu zirenak Little, Little Muchekoak izan ziren. Hondartzarako aukietan jarrita agertu ziren ikusleen aurrean. Txantxak alde batera utzita, baina, taldearen ikurra oholza gaineko freskotatua izan zen. Tamalez, antza entsegurako aukera gutxi izan du taldeak eta, gainera, abeslaria gaxorik zegoen; gitarra-jotzaileak abestu zuen. Hirukoteak, hala ere, ez zuen txarto egin egubakoitzekoa.

Neurri handi baten, The 5 Twisters arrasatearrek eman zioten erritmoa gauari. Talde trinkoa eta teknikoki fina da.

Eta amaitzeko Anal Bag. Euren saltsa *elektropornogrind-core* horrekin, ahosabai guztien dako egina ez dagoen proposamena ekarri zuten. Eurak saltsan gustura eta, antza, ikusleak ere ez ziren kexatu.

Proposamen klasikoak ausartenen aurrean



ERRITMOA Gaueko kontzertu biziena izan zen Arrasateko The 5 Twisters taldeak egindakoa.

JOSETXO ARANTZABAL

FINALA HIRU ASTE BARRU

Azaroaren 3koa izan zen izarren gaua, orduan jo zuten-eta hiru talde finalistek. Epaimahaiak adierazi duenez, aurtun aurrekoan baino zailago izan dute hiru taldeak aukeratzea, "modu esangu-

ratsuan inor nabarmendu ez delako", eta sei bat talderen artean ibili dira zalantzatan. Azkenean, aipatutako hiru taldeak aukeratu dituzte eta urtarrilaren 12an erakutsi beharko dute berriz zertarako gauza diren. Hiru taldeek 30

minutuko emanaldia egin beharko dute. Talde gonbidatua ere egongo da: Kerobia eta hainbat gonbidatu berezi egongo dira finalean eta egun horretan bertan jakinaraziko dute zein den txapeldua. Bakarleri onenaren saria

norentzat izango den ere finalean argituko dute. Bakarleri onenak Azkena Rock jaialdirako bi lagunendako abonua eta bi hotel gau irabaziko ditu. Gainera, Danbakak hainbat kontzertu lotuko dizkio bakarleri irabazleari.

TALDE FINALISTAK ETA EPAIMAHAIAREN ARRAZOIAK



Malenkonia

Taldeak aurkeztutako soinu landua eta aberatsa azpimarratu du epaimahaiak Oñatiko taldea aukeratzeko orduan. "Definitu egin dute soinua eta zuzenean taldeago ikusi ditugu taula gainean, bat eginda", dio epaimahaiak. Aurreko ediziotik egindako "demaseko jauzia" aipatzen dute, eta egiten duten "pop dotorea" azpimarratu.



Belceblues

Bergarako hirukotearen iaotasun instrumentala goraiatzeko du epaimahaiak. Soinu "elegantea" daukatela diote, "soinu klasikoak belarrietarako, entzulea harrapatzen duena". Ahotsekin egiten duten jokoak ere baloratu du epaimahaiak. Amaitzeko, gehitzen dute hirukote izateak ere bete egiten duela emaitza.



Aby-Kem

"Entseguak ikusten dira taula gainera atera eta lehenengo notak entzun orduko". Horiek Bergarako taldeari buruzko epaimahaiaren lehen hitzak. Taldearen soinua ere preziatu dute: "Trinkoa, indartsua, mugimendu trinkoekin eta soinu definitua eta landua" dira erabilitako deskripzioak. "Bizitasuna modu erasokorrean".



INALECTRIK | Aretxabaleta

Musikariak esana /

Ekain Zubizarreta > Anger taldea
"Soinua ez du alde izan eta horrek ez dio askorik lagundu. Entzuteko atsegina den musika egiten du hark, baina ezer berririk ekarri barik."

Ikusleek esana > Eneko Azpillaga

"Gustuko ditut bakarlariak, eta Inalectrik gustatu egin zait. Planteamendua oso klasikoa izan da, ondo aurkeztu ditu abestiak eta, gainera, ondo egindakoak iruditu zaizkit. Taldeak ere asko lagundu du, ze indarra eman baitiote eta hasierako tar-te akustikoan zeukan grina falta eman diote batera-jotzaileak eta baxu-jotzaileak."

Kazetariak esana > Jon Berezibar

"Soinu gorabeherak alde batera utzita abestiak konposizio aldetik ondo zeuden eta osatuak zirela iruditu zait. Taldea ere ondo ibili da eta kontzertu ona egin dutela iruditzen zait. Agian ahotsa batzuetan laua egiten zen, baina estilo kontuak dira horiek."

Bakarlariak esana

"Hasieran akustikoarekin irten naizenean urduri nengoen, baina gero lasaitzen hasi eta ondo joan da. Taldea sartu denarako kontrolatuta zegoen eta benetan arin joan da guztia. Gustura egon garelara uste dut."



LITTLE, LITTLE MUCH | Arrasate

Musikariak esana /

Ekain Zubizarreta > Anger taldea
"Freskoa iruditu zait taldea, gustura egon naiz entzuten. Hasieran, abestiak landugabeagoak ziren, baina bukaeran jo dituztenak onak ziren. Freskotasuna iruditzen zait azpimarragarriena."

Ikusleek esana > Eneko Azpillaga

"Taldea hau gehiago gustatu zait jarreraz musikaz baino, baina susmoa daukat gehienetan garrantzitsuagoa dela lehena bigarrena baino. Gazteak dira eta itxura ona du egiten dutenak. Musikarekin pauso bat gehiago eman beharko lukete, ze originalak baitira."

Kazetariak esana > Jon Berezibar

"Pena da taldeak entseatzeko denbora laburra izatea, ze kontzertua ez baita txarto egon, talde ona dela uste dut, nahiz eta oraingo honetan guztiz frogatu. Taldeak badaki eszena gainean egoten, biziak dira eta nortasuna daukate, eta taldea asko gustatu zait."

Taldekidetok esana

"Denbora nahikotxo da ez dugula elkarrekin entseatzeko eta alde horretatik nahiko ondo atera zaigula uste dugu. Entseatzeko ere asti laburrekin ibili gara, baina azkenean ez da hain txarto atera. Gu, behintzat, gustura ibili gara."



THE 5 TWISTERS | Arrasate

Musikariak esana /

Ekain Zubizarreta > Anger taldea
"Eszenaratze benetan ona daukatela iruditu zait. Oso ondo jo dute eta asko gustatu zait. Hala ere, musika ez da ezer berria, aspaldiko gauza baten erreproduktzioa izan da; sorkuntza aldetik huts hori daukate."

Ikusleek esana > Eneko Azpillaga

"Asko gustatu zait kontzertua, benetan ondo jo dute, horrek ez du bueltarik. Gustu handiarekin jo dute eta proposamen landua dela argi geratu da. Eszenatokia bete egin dute. Erabatekoa izan da, beraz, egin dutena,"

Kazetariak esana > Jon Berezibar

Emanaldi onena izan da euren: bai eszenaratze aldetik, bai musika aldetik, baita erritmo aldetik ere. Huts bakarra: originaltasun falta, entzunegia da egiten dutena. Hala ere, horrek ez du kentzen kontzertu ona egin eta ikuskizun are hobea eskaini izana."

Taldekidetok esana

"Oso ondo joan da, oso gustura ibili gara eta berehala berotu gara. Aurretik kontzertuak egin ditugu eta nahiko prestatuta etorri gara; behintzat, segurtasunarekin irten garelara ikusi ahal izan da. Soinua ere ona izan da."



ANAL BAG | Arrasate

Musikariak esana /

Ekain Zubizarreta > Anger taldea
"Proposamen ausarta da haiena. Guztiz absurdoa, eta absurdotasun horretan bizi dugun mundu honen isla egiten dute. Gauza asko ikusi dira, irudiak ere lagun izan dituzte, gogorrak askotan, baina ispi-lu moduan balio dutenak. Planteamenduetan berak agian ez du zentzurik, baina osotasunean funtzionatu egin du."

Ikusleek esana > Eneko Azpillaga

"Antza ez dut txistea ulertu, ze ez baitzait gustatu. Musika baloratu behar badut, ez dit graziaz egin eta ikuskizuna zertxobait doakoa iruditu zait."

Kazetariak esana > Jon Berezibar

"Dibertigarria izan da, baina musikarengatik? Proiekzioengatik? Haien jarrerarengatik? Forma gustatu egin zait, baina gisa horretako proposamenak aztertzeke diseinatzen badira, berez duten balio probokatzailerak gaitzen dute. Musika ez zait gustatu."

Taldekidetok esana

"Oso gustura ibili gara eszenatoki gainean. Gu benetan dibertitu gara, jende asko egon da aurrean eta ez genuen espero erantzun hori, ze normalean Danbakan jendea urrutia ipintzen baita. Jendea animatuta, baita gu ere, eta ondo atera da."



Usoa Agirre/Mainer Arregi

Borrokarako prest daude taldeak

Inalectrik gitarrarekin lagunduta irten zen taula gainera. Emanaldiak aurrera egin ahala, baina, gehitu zitzaizkion gitarrar-jotzailea eta bateria-jotzailea. Emanaldi txukuna egin zuen, baina gure begiak bateriaren bonbora joan zitzaizkigun. Itxura denez, modan dago bateriaren bonboan pegatinak jartzea. Neska bat biluzik ikusten zen bonboan.

Little Little Muchekoak abeslari barik etorri ziren. Gaixotu egin zaie, eta ezin ba abestu! Hala ere, moldatu ziren abesten, hanka puntetan bada ere. *Giri* pintarekin agertu ziren eszenatikian. Mallorcara egin zuten bidaiari batean sortu zitzaien taldea egiteko ideia eta Euskal Herrian eman duten lehenengo kontzertuan momentu hura gogoratu nahi izan zuten. Praka motzetan irten ziren, hondartzako kit konpletoarekin, baina txankletak falta zitzaizkien galtzetin gaintetik, *giri* planta konpletoa izateko.

The 5 Twistersekoak dantzan jarri zituzten ikusleak. Abeslariari batek baino gehiagok **Ariel Roten** itxura hartu zion. Mexikoko borroka librekoek erabiltzen dituzten maskara jantzi zuen bukaeran, **Straitjackets** taldekoen antzera. Edizio honetan ez da maskara horiek ikusi ditugun lehen aldian; **Yotoxekoak** ere horrelakoxe maskarak erabili zituzten.

Anal Bagekoak bideo eta guzti etorri ziren. Kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago ekarri zuten lagunek bideoa muntatuta, ordura arte lanean arituta. Marketina ere egin dute; antzokiaren sarreran izan zituzten salgai kamisetak, metxeroak eta bestelakoak. Bi pantaila erraldoi jarri zituzten bideoak jarraitzeko. Ezin da hitzez azaldu ikuskizuna. Onena telebistaz ikustea izango duzue, nahiz eta ezingo den bertan moduan sentitu. Indarkeria, odola, sexua, umorea eta frikikeriak nahasten zituen bideoak.



INPAKTUA Irudi eta soinu bateria zen Anal Bagekoena.



BIRIBILAK Ondo eraikitako abestiak zituen Iñaki.



FRESKOA izan zen Little, Little Mucheko zuzenekoak.



ABERATSA Musikalki osoenak izan ziren The 5 Twisters.



BIRITAN Anal Bageko eta Little, Little Mucheko Iban.



'GIRIAK' Hondartzara joateko prest agertu ziren Little, Little Muchekoak.

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaca.com* webgunean; SMS bidez: danbaca [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ. Eta Espaloian jarritako kutxetan.

- 1 **ABY-KEM**
BERGARA
Botoen %9,48
- 2 **DRAKES**
ONATI
Botoen %8,77
- 3 **ANAL BAG**
ARRASATE
Botoen %8,63
- 4 **LITTLE, LITTLE, MUCH**
ARRASATE
Botoen %8,52
- 5 **RAUL LASA**
ARRASATE
Botoen %8,45
- 6 **YOTOX**
BERGARA
Botoen %8,28
- 7 **KLAKSON**
ANTZUOLA-ZUMARRAGA
Botoen %8,10
- 8 **INALECTRIK**
ARETXABAETA
Botoen %7,52
- 9 **MAHASTER RIVER**
BERGARA
Botoen %7,20
- 10 **LOS CRETINOS**
ARRASATE
Botoen %6,61
- 11 **JIM TNT**
ARRASATE
Botoen %5,39
- 12 **THE 5 TWISTERS**
ARRASATE
Botoen %2,41
- 13 **SCAM**
BERGARA
Botoen %2,26
- 14 **UNNEA**
ONATI
Botoen %2,20
- 15 **AZKAITER PELOX**
BERGARA
Botoen %1,50
- 16 **MATX**
ELGETA
Botoen %1,48
- 17 **OZEN**
ARRASATE
Botoen %0,89
- 18 **BELCEBLUES**
BERGARA
Botoen %0,79
- 19 **IGOR**
ARETXABAETA
Botoen %0,79
- 20 **MALENKONIA**
ONATI
Botoen %0,62

Finalak

URTARRILA 12
Espaloia | 22:30
> **Aby Kem**
> **Malenkonia**
> **Belceblues**

HAN IRITZIA EMAN DIGUTE

Xabi Eizagirre >
Aretxabaleta

"Five Twisters eta Inalectrik gustatu zaizkit batez ere, nire musika zaletasunekin bat datoze-lako. Gainera, jo ere haiek jo dute ondoen, nahiz eta proposamen moduan tradizionalak izan. Hala ere, jendea musika hori asko gustatzen zaiola uste dut, eta ez dute batere txarto egin".

Itsaso Merino >
Arrasate

"The 5 Twistersek konpondu du gaua, ze beste guztiak nahiko kaxkartxoak iruditu baitzaizkit. Kontzertu zuzena, bizia eta gozagarria izan da. Eurak ere asko mugitu dira eszenatoki gainean, eta hori da kontzertu baten behar dena: ikusleek eta eurek gozatu ahal izatea".

Arkaitz Ormazabal >
Arrasate

"Denak gustatu zaizkit, baina batek ere ez nau utzi aho zabalik. Inpresio handien Anal Bagek eragin dit, baina ikuskizunarengatik, ze musika ez baitzait batere landua iruditu. Alde horretatik, landuenak The 5 Twisters izan dira eta kontzertu onena ere haiena izan dela iruditzen zait".

Mikel Blanco >
Arrasate

"Taldea gazteenekin geratzen naiz, ze oso itxura ona hartu baitiet Little, Little Much eta The 5 Twistersekoak. Gazteak dira eta ondo jotzen dute, baina batez ere biek erakutsi dute oholtza gainean egoten dakitela, eta ikuskizuna eman dute, musika alde batera utzi barik. Oso ondo egin dute."

Jon Martinez >
Arrasate

"The 5 Twistersen kontzertua asko gustatu zait eta Anal Bagekoekin ondo pasatu dut. Musika aldetik, baina, The 5 Twisters gustatu zait gehien jo duten modurengatik, eta, gainera, tronpeta ere gehitu diote, eta oso aberatsa izan da. Gainera, eurak ere oso ondo mugitu dira".

*Imajinatzen duzun eguberriak,
ez du mugarik*

Imajinatzen duzun Eguberriak ez du mugarik Gasteizko Boulevard dendagunean. Zure buruan existitzen dena, egia bihur daiteke. Izan ere, imajinatzen duzun Eguberria arautik harago doa, iragarki honetatik harago doa. Nahi duzunean hasten da, eta ez du izen berezirik. Ohiturak, zeure etxeokak dira; eta tipikoa, zuk betidanik gozatu nahi izan zenuen hura.



Joko didaktikoak eta olentzero bilduma ikastolen elkartereko txokoon



ANIMALIEN
ALFABETOA



ZAZPI, BURU BETE BAZPI
DVDa



AUSKALO



NOR DA NOR?

15
urte
jokogintzan



KONTZERTUA > AITA MADINAREN OMENEZ

Omenaldi goxo eta jendetsua Aita Madinaren mendeurrenean

Oñatiko parrokia 750 lagunentzat egokitu zuten egubakoitzeko kontzerturako

'Aita gurea' obra ospetsuak jaso zuen iluntzeko txalo zaparrada handiena

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Oñatiko parrokia bete egin zen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoia elkarrekin Aita Madinaren omenez eskaini zuten kontzerturako.

Ikusmin handia piztu zuen kontzertuak, eta entzuleak pozik atera ziren ikuskizunetik: kontzertua ederra eta era berean hunkigarria izan zen. Cristian Mandear zuzendari errumaniarrak dotore zuzendu zuen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.


Bi zati izan zituen kontzertuak: lehenengoan, Euskadiko Orkestrak bere doinu goxoenak eskaini zituen. *Dantza* obrarekin hasi zen kontzertua. Ikusleen belarriak goxatu eta giroa bertzeko nahikoa izan zen. Ondoren, *Lau gitarra eta orkestrarako egindako euskal kontzertua* jo zuten. Horretarako, Eduardo Beranzano, Marco Socias, Ana Ayneto eta

Francis Goudard gitarra-jotzailean laguntza izan zuen orkestrak. Bikain aritu zen laukotea; akorde bizien laguntzarekin *Zortziko* eta *Fandango* doinuekin busti zuten Oñatiko parrokia.

ORFEOIA BIGARREN ZATIAN

Gitarra doinuek orfeoiko aho-tsetara pasa ginen. Harrera beroa eman zion Oñatiko herriak orfeoari; bereziki Esteban Urtzelai oñatiarrari. Izan ere, Ganbara Abesbatzako zuzendaria Aita Madina oñatiarraren mendeurreneko ospakizunetan aritu zen.

Birgina maite eta *Olentzero* abesti ezagunen zatiak entzun genituen, *Basque christmas suite* obraren barruan. Elena Barbe sopranoa aritu zen bakarlari lanetan; pulpitutik orfeoia gidaritza hartu zuen Barbek. Bukartzeko, Aita Madina musikariaren obra ezagunena eskaini zuten:



JENDETSUA Euskadiko orkestrakoak eta Donostiako orfeoioak parrokiako aldarepean jarri ziren.

JOSETXO ARANTZABAL.

Aita gurea. Ana Salaberria aritu zen bakarlari lanetan. Parrokiak bat egin zuen eta txalo zaparrada izugarria izan zen. Eskertzeko, errepikatu egin zuten *Aita gurea*.

BI PANTAILA ERRALDOI

Parrokia 750 pertsonarentzat egokitu zuten. Bi pantaila erraldoi

jarri zituzten, parrokiako alde banatan. Hala, alde banatan jesarrita zeuden ikusleek pantailan ikusi ahal zuten orkestraren nondik norakoak. Zuzenean egin zuten errealizazioa, koro azpian zegoen kamera bakarrarekin.

Kontzertuaren kostua 38.000 euro izan zen eta Udalak eta lagun-

tzaile pribatuek ordaindu zuten guztia. Korua Oñatiko musikariarentzat egokitu zuten; han izan ziren Udal Musika Bandakoak eta herriko hainbat abesbatzatarako kideak. Lehenengo lerroetan, berriz, ordezkari instituzionalak eta Aita Madinaren familiartekoak izan ziren.

ANTZERKIA > HEGO EUSKAL HERRIAN EZAGUTZEN DEN EUSKARAZKO LEHENENGO ANTZERKI OBRA

Ikusleak pozik Doke antzerki taldearen lanarekin

Emanaldiaren bukaeran aktoreek omenaldi xumea egin zioten testua maisuki moldatu duen Josemari Velez de Mendizabali

AITOR IZAGIRRE > ARRASATE

Doke antzerki taldeko kideek *Acto para la Noche Buena* lana estreinatu dute asteburuan Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Datorren astean Aramaion taularatuko dute. Izan ere, Pedro Ignacio Barrutia aramaioarra izan zen XVIII. mendean antzerki hura idatzi zuen gizona. Hego Euskal Herrian ezagutzen den lehenengo antzerki euskalduna da. Testuaren moldaketa Josemari Velez de Mendizabalek egin du;



DOKE ANTZERKI TALDEA Hamabost aktore aritu ziren Amaia antzokiko oholta gainean.

JOSETXO ARANTZABAL

aspaldiko testua maisuki moldatzeaz gain, garai bateko euskalkia eta gaur egungo euskara paregabe uztartu ditu arrasatearrak.

IKUSLEEN PARTE-HARTZEA

Aktoreek ilusio itzela jarri zioten ikuskizunari eta etengabe ikusleen parte-hartzea bilatu eta aur-

kitu zuten. Horretaz gain, hainbat aktorek euren benetako izenak eta hainbat datu erabili zituzten eta horrek ikusleen konplizi-

tatea ekarri zuen. Etengabeko algarak entzun ziren jarlekuetatik antzezlanak iraun zuen bitartean. Momentu hunkigarriak ere bizi izan ziren, emanaldiaren bukaeran aktoreek *sari* bat entregatu zioten-eta Josemari Velez de Mendizabali, eta hark taldeko kide guztiei eskaini zien saria. Azpimarratzekoa baita ere, Josu Jauregi protagonista gaztearen lan txukuna.

ZAPATUAN ARAMAION

Antzokiaren hiru laurdenak bete-ta, bukaeran pozik aurkitu genituen ikusleak. Hala, antzerkia ikusterik izan ez zutenei Aramaiora hurbiltzeko gomendioa egiten diegu. Emanaldia datorren zapatuan izango da, hilaren 23an, 20:00etan, kultura etxean.

Gabonak ate joka ditugun honetan, egokia izan da euskarazko antzerkia aurkeztea; izan ere, askok irribarrea ahoan zutela hartu zuten etxerako bidea.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Beheko auzoa, 4. solairua. Egongela, bi logela, sukaldia, bainugela eta ganbara. Berritua. 639 58 13 83.

Antzuola. Duplex berria salgai bi autorentako lekua duen garajearekin. Bi komun, hiru logela, egongela eta bi balkoi. Berehala bizitzera joateko gertu. 653 71 54 16.

Antzuola. Etxebizitza salgai. Berogailua, 3 logela, jangela, egongela eta balkoi ditu. Eguzkitsua eta berritua. Berehala bizitzera joateko gertu. 685 70 41 10.

Antzuola. Etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, bainugela, sukaldia eta balkoi. Dena kanpoaldera. Eguzkitsua. Jantzia. Prezio interesgarria. 679 52 65 95.

Aretxabaleta. Duplexa salgai. 620 17 05 32.

Aretxabaleta. Luxuzko txaleta salgai Duran. Ordaintzeko erraztasunak. 657 79 81 78.

Arrasate. Apartamentu berria salgai herri erdi-erdian. Egongela, sukaldia, logela bat, bainua, trasteleku, igogailua, berogailua. Oso polita. Deitu 16:00etik aurrera. 670 55 87 41.

Arrasate. Erdigunean etxebizitza salgai. Jantzia. Igogailuarekin. Hiru logela. 605 76 36 24.

Arrasate. Etxebizitza salgai Iza-rra dorrean. Hiru logela, sukaldia eta egongela. Berehala bizitzera joateko gertu. 630 07 07 27.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Andres auzoan. Berritua. 200.000 euro. 635 75 50 36.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zerrajeraren kalean. Hirugarren solairua. 975 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia jantzitza eta hiru balkoi. Garaje txikiarekin. Prezio berria. 605 77 58 64.

Arrasate. Garaje plaza salgai (14 m²) Usate plaza. 665 71 40 34.

Bergara. Zubiaurre kalean. Guztiz berritua. Hiru logela, balkoi eta ganbara. Berogailua dauka. 943 28 76 36.

Bergara. Apartamentua Zubietan. 50 m². Erdi berritua. Ruben. 679 45 57 62.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldia. Dena kanpoaldera, ikuspegi onekin. Solairu altua, igogailuarekin. 620 18 59 06.

Bergara. Simon Arrietan. 80 metro koadro. Berogailua, igogailua, bi logela eta balkoi handia. Berritua. Garaje aukeran. Prezio ona. 664 73 49 60.

Bergara. Zabalotegin 50 m²-ko etxebizitza salgai. Bi logela eta komun bat. Berritua. 14 m²-ko sotoa. 635 72 67 11.

Bergara. Etxebizitza eta ganbara salgai. Etxebizitza 60 m²; ganbara 30 m² eta bi metroko altuera. Guztiz berritua. Berogailua. Hegoaldera begira. Duplexa egiteko aukera. 616 55 04 19.

Elgeta. Bigarren solairua. Igogailua, bi logela, komuna eta ganbara. 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

Elosu. Baseria salgai. 616 82 22 15.

Eskoriatza. 90 m². Hiru logela, bi

bainugela, biterraza, trasteleku eta garaje itxia. Berogailua eta igogailua ditu. Jantzia. 607 43 84 55.

Eskoriatza. Berritua eta jantzia. 90 m², lau logela, bi bainugela, biterraza eta berogailua. 636 57 76 13.

Gasteizen apartamentua hiri erdian. Bi logela, sukaldia, bainugela eta egongela. Guztiz jantzitza. Trasteleku eta ganbara. Hiru urte dela berritua. Solairu altua, igogailuarekin. Berogailu indibiduala. 629 75 54 22.

Legutiano. Etxebizitza salgai. Egongela, jangela, komuna, lau logela eta ganbara handia. 945 45 52 68 edo 690 10 21 30.

Legutiano etxebizitza salgai. 210.000 euro. Negoziatu egin daiteke. 945 45 52 68.

Oñati. 86 m², Bidebarrietan, hiru logela, sukaldia, egongela, bi bainugela, ganbara eta garajea. 635 73 08 86.

Oñati. 86 m². Bidebarrietan. Hiru logela, sukaldia, egongela, bi bainugela, trasteleku eta garajea. 635 73 08 67.

Oñati. Etxea salgai, leku eta egoera oso onean. Sukaldia, egongela, hiru logela, bi bainu, ganbara. Garaje aukeran. 635 70 83 11.

Oñati. Etxebizitza salgai Euskadi etorbidean. Lehen solairua. Eguzkitsua. Guztiz kanpoaldera ematen du. 645 72 42 42 edo 945 14 18 17.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorenzo auzoan. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi. 80 metro koadro. 19 metro koadroko edo 35 metro koadroko garaje itxia aukeran. 656 74 80 47.

Oñati. San Lorentz on apartamentua salgai. Bi logela, saloi-sukaldia, komuna eta terraza handia. Garaje aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. San Lorentz on apartamentua salgai. Bi logela, saloi-sukaldia, komuna eta terraza handia. Garaje aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

103. ERRENTAN EMAN

Apartamentua errentan Cauteret erdialdean, Frantziako Pirinioetan. 4-6 lagunendako aproposa. 625 70 61 91.

Aretxabaletan etxea alokatzen dit. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. 652 76 79 57.

Arrasate. Arrasate pasealekuan 90 metro koadroko etxebizitza emango nuke errentan. 690 72 24 18.

Arrasate. Ferrerías kalean etxebizitza errentan ematen da. 669 66 54 99.

Vera (Almería). Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzitza (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Hiru laguneko familia batek etxebizitza edo gela bat hartuko luke errentan. 649 63 23 24.

Debagoienan etxebizitza hartuko nuke errentan. 685 79 21 56.

105. ETXEAK OSATU

Tuteran logela bat dut alokagaitz kurtso osorako. 669 97 91 31.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarki bakarririk iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Garajea salgai edo errentan emateko Kalegoian. 666 44 10 09.

Arrasaten 42 m²-ko garajea saltzen da. Telefonoa: 636 34 77 08.

Bergara. Garaje itxia, San Lorentzon. 943 76 40 05.

202. EROSI

Bergara. Erdialdean garajea erosi edo errentan hartuko nuke. 616 72 43 48.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Sagastin garajea errentan ematen da. 650 55 44 98.

Arrasate. Garajea emango nuke errentan Zerrajeran. 24 metro koadro. Auto handi batendako eta trastelekurako tokia du. 690 72 24 18.

Arrasate. Garajea errentan ematen da Uribe auzoan. 677 53 68 46.

Arrasate. Trasteleku duen garajea alokatzen da Uribe auzoan. 699 14 37 79.

Bergara. Ibargarai kalean. 16 metro koadro. Telefonoa: 943 76 74 19.

Garaje bat alokatu edo saldu egiten da. Erdialdean. Telefonoa: 665 73 40 09 edo 943 77 18 49.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Autokarabana baterako garajea hartuko nuke errentan. Telefonoa: 699 60 20 10.

Bergara. Garajea edo trasteleku alokatuko nuke. (Maria). 663 39 58 14.

3/ LOKALAK

302. EROSI

Bergara. Lokala erosiko nuke, 60 m²-tik gorakoa. 656 74 74 78.

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bulegoak alokagai Otalaran 18an, Uarkapeko arkupeetan. 638 17 93 63.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta Bergara. Neska bat prest dago umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Baita garbitasun lanak egiteko ere. 679 38 44 37.

Arrasate. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Lanaldi osoa egiteko prest. Esperanza. 678 80 96 01.

Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Lanegin behar duen etxean bizitzeko ere prest dago. Liceth. Telefonoa: 659 34 68 05.

Arrasate. Esperientziadun neska prest dago pertsona nagusiak zaintzeko edota garbitasun lanak egiteko. Baita aste bukaeretan ere. 678 40 33 99.

Arrasate. Ingelesko eskola partikularren ematen ditut. 686 54 66 67.

Arrasate. Asteazken zehar zerbitzari lanak egiteko neska gertu. 653 73 45 84.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. 671 33 75 63.

Bergara. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko. Eskarmentuduna. 618 93 59 29.

Bergara. Neska lan bila dabil, egunez egiteko: garbiketa lanak egiteko litzuzke edo umeak zainduko litzuzke. Telefonoa: 610 82 02 17.

Bergara. Neska lan bila dabil, pertsonak edo umeak zaintzen. 663 66 04 94.

Debagoiena. 20 urteko ikasle batek tabernan edo beste zerbitzetan lan egingo luke, arratsaldeetan. Telefonoa: 669 17 09 51.

Debagoiena. Emakume eskain-

tzen da pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Arratsaldeetan lan egingo luke. 628 82 96 56.

Debagoiena. Haur Hezkuntza ikasketak egiten diharduen neska gazte bat arratsaldeetan umeak zaintzeko gertu. Eskarmentua. Maddi. 652 77 89 15.

Debagoiena. Mutila gertu aste-buruetan sukaldari lanetan jarduteko. 686 74 01 95.

Debagoiena. Mutila lan bila dabil; edozein motako lana egiteko gertu dago. Automobila badauka. 619 87 90 57.

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo beste edozein lan serio egiteko gertu. Telefonoa: 610 93 49 71.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. 664 66 12 49.

Debagoiena. Neska eskaintzen databernari edo zerbitzari lanak egiteko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Telefonoa: 676 82 24 31.

Debagoiena. Neska prest nagusiak zaintzeko. Aste bukaeretan. Gaez ere bai. Esperientziaduna. 696 11 01 94.

Delinatzaile proiektugilea, industria adarrean, arkitektura, industria... lanerako prest. 943 76 63 92.

Emakume gaztea lanerako gertu. Ostalaritzan edo baita beste edozein lanerako ere. 678 40 21 24.

Emakume gertu, etxean bertan bizi izaten, lan egin, adinekoak edo haurrak zaindu, nahiz ostalaritzan (sukaldean) lan egiteko. Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. Telefonoa: 943 79 81 01 edo 659 36 88 33.

Oñati. Esperientziadun pertsona prest ostalaritzan lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 606 29 81 97.

Oñati. Neska gaztea gertu arratsaldeetan haurrak zaintzeko. 652 71 52 50.

Zumarraga. Emakume lanerako gertu, garbiketa lanak egiten edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. 628 52 34 06.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

LH, DBH eta batxilergoko ikasleei eskola partikularren emateko neska gertu. 653 73 45 84.

LH eta DBHko ikasleei eskola partikularren emateko gertu. 600 84 12 97.

Matematika, kalkulu, ingeles eta fisikako eskolak ematen ditut. Maila ertainean eta unibertsitate mailan. Marco. 649 63 23 24.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A-3 kotxea salgai. 699 49 14 37.

Autokarabana salgai. 1998koa. 51.000 km. 21.000 euro, negoziagarria. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

Autokarabana salgai. Hymen, 6 lagunentzako; Citroen C-25 diesela; Knauss, 6 lagunentzako; Fiat Ducato 1.9 turbodiesela; Weinsberg, 6 lagunentzako; Fiat Ducato 2.5 TDI. 657 79 09 58.

BMW 320 coupe E36. Gehigarriak. 659 04 20 99.

California 2.4. Diesela, 1994koa. CD-MP3a, komun kimikoa. 667 61 74 43.

Citroen ZX 1.600. 90.000 km. 3.000 euro. 650 56 87 79.

Citroen C5 autoa salgai. 2.0 eta 16V. 4 urte eta 36.000 km. 11.500 €. 661 23 48 07.

Citroen Xsara salgai. 1600 VTS. 2001ekoa. 90.000 km. Laranja kolorekoa. 615 79 79 21.

Fiat Bravo. Prezio ona. 943 76 15 76.

Furgoneta salgai. Iveco Daily Unijet markakoa. 40.000 Km. 3.500 €. 659 44 75 08.

Golf GTI autoa. SS-AF, prezio interesgarria. 652 77 71 08.

Honda XR 650 R motorra salgai. 7.500 km, egoera oso onean. 3.900 euro. 665 71 42 69.

Honda CDR 600 F motorra sal-

gai. 1993koa. Pneumatiko-estalki, balazta eta bateria berrieekin. Telefonoa: 605 74 52 02.

Karabana. Knauss 550. 2006koa. 6 plaza. Aire girotua eta estrak. 17.000 euro. 652 77 73 27.

Opel Astra turbodiesela. 1997koa. 165.000 km. 699 60 20 10.

Peugeot 206. Urdina, gasolina. 30.000 km. Telefonoa: 652 75 50 11.

Peugeot 806 autoa salgai. 6.000 euro. 605 72 17 34.

Peugeot Boxer Isotermo salgai. 943 79 34 23.

Seat 127 salgai. Egoera onean. 943 76 46 90.

Seat Ibiza. 110 ZP TDI Sport. 5 urte eta 103.000 km. Gurpil-azal berriak, jarri eta kentzeko lotura-bola, goiko parrilla eta CD kargadorearekin. 7.500 euro. 649 27 38 18.

Volkswagen Transporter salgai. 1996koa. 200.000 km. 3.500 euro. 650 06 04 56.

603. ALOKATU

Karabanak gordetzeko lekuak alokatzen dira. 616 82 22 15.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Hamsterak opari egiten ditut. 609 51 93 67.

Kalean aurkitutako txakurkumea. Laborari eta eskualartzain nahasketa. Arra. 617 24 29 95.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Antzinako altzariak eta zahar-berrituak saltzen ditut. Telefonoa: 615 74 13 47.

Aspes hozkailu konbia salgai. 699 72 48 91 edo 680 44 91 61.

Bergara. Hektarea bateko pinudial salgai (10.000 metro koadro). 678 72 75 72.

Bi gitarra saltzen ditut, biak oso egoera onean. Lehena, Epiphone Les Paul Custom, Gibson pastillak aldatu berri ditu (500 euro). Bigarrena, Fender Stratocaster USA (700 euro). 635 74 09 70.

Bigarren eskuko klarinete bat erosiko nuke. 619 34 88 52.

Bizikleta salgai. Ditec. 890 Full Carbon. Neurria: 54. Campagnolo Record. Urtebete dauka eta oso gutxi erabili dago. 1.600 euro. 678 72 89 18.

Eskusoinuak salgai. Bata: handia eta tekladuna; bestea: txikia eta botoiduna. 943 76 16 79 edo 652 72 01 15.

Gurpildun maleta salgai. Bi pertsonaren gauzendako lekua dauka. 40 euro. 943 79 68 18.

Ile-apainketa tresneria salgai. Egoera onean. 943 78 61 92.

Intxaurekologiakoak salgai. Kiloa hiru eurotan. Deitu telefono honetara 943 78 61 92 edo 943 76 64 65.

Koltxoia eta somierrak salgai, hankekin. 90x180. Telefonoa: 605 72 64 43.

Masajek emateko mahaia salgai. Ikerabili gabe. Altxeraren erregulagarria eta tolesgarria. Larru beltzekoa. 300 euro. 943 79 01 12 edo 680 35 04.

Masajek emateko esku-oheta. Larru beltza. 150 euro. 665 70 41 13.

Quad Kimco KXR250 salgai. Ditutu telefono honetara: 687 36 02 58.

Sonytelebista. 32 hazbete eta 100 hertz dituen telebista panoramiko prezio interesgarrian saltzen dut. Kristalezko eta aluminiozko altzaria barne. Telefonoa: 607 63 48 88.

Sukalderako mahaia salgai. Neurria: 90x90. Guztiz zabaltzen da. 617 17 15 8

astea GOITBn

Astelehena, 18



> Danbaka lehiaketa: finalistak 21:47

Gaurko saio berezian Danbaka musika lehiaketako finalerako sailkatu diren taldeak ezagutuko ditugu. Finala urtarrilaren 12an izango da.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Teknopolis.
- 14:15 Mandio.
- 14:45 Albisteak.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Bizitegia.
- 16:00 Klip@.
- 16:15 Jazzmina.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Danbaka.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbaka berezia.
- 22:15 Hasiberriak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ikusmira.
- 00:15 Emisio amaiera

Martitzena, 19



> 'Berbaire': gaurkotasuneko gaiak 21:47

Gorka Etxabek gidatutako saioan, politika eta gizarte gaiak Elena Laka, Mikel Irizar, Joseba Muxika eta Mikel Usabiaga gonbidatuekin.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Danbaka berezia.
- 14:45 Albisteak.
- 15:00 Didjeridu.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Hasiberriak.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Bizitegia.
- 18:30 Klip@.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbaka: Inalectrik.
- 22:15 16mm.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Mandio.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Harmailatik.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 20



> 'Sustatu'-ren bosgarren urteurrena 21:15

Sustatu euskarzko blogak Arrasaten ospatu berri du bosgarren urteurrena. Joan den asteko ekitaldian egindako erreportajea gaur.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka: Inalectrik.
- 14:45 Albisteak.
- 15:15 16mm.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Hasiberriak.
- 16:15 Mandio.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Harmailatik.
- 18:15 Danbaka berezia.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Danbaka.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Sustatuk 5 urte.
- 21:45 Gaurkoak.
- 22:15 Hasiberriak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 21



> Danbaka: Little Little Much arrasatearrak 21:47

Danbaka lehiaketarekin jarraituz, egubakoitzean Little Little Much taldeak Elgetako Espaloian egindako kontzertua emango dute gaur.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Sustatuk 5 urte.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Danbaka berezia.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa.
- 18:15 16mm.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Bizitegia.
- 19:30 Klip@.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbaka: Little Little Much.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Danbaka berezia.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 22



> Santamasetako saio berezia gaur gauean 22:15

Santamase gaineke saio berezia eskainiko du GOITBk gaur gauean. Irudi freskoenak, protagonisten iritziak eta beste-lako kontuak.

- 13:15 Emisio hasiera
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
- 13:45 Gaurkoak
- 13:47 Berbaire
- 14:15 Danbaka: Little Little Much.
- 14:45 Albiste aurrerapena
- 15:15 Eltze beroa
- 15:45 Gaurkoak
- 15:47 Didjeridu
- 16:15 Mandio
- 16:45 Albiste aurrerapena
- 17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
- 17:45 Gaurkoak
- 17:47 Sustatuk 5 urte
- 18:15 Loramendi elkarteak 20 urte
- 18:45 Albiste aurrerapena
- 19:15 Danbaka berezia
- 19:45 Berriak
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
- 20:45 Berriak
- 21:15 Teknopolis
- 21:45 Gaurkoak
- 21:47 Hitz Bitan
- 22:15 Santamasetako
- 22:45 Berriak
- 23:15 Berbaire
- 23:45 Gaurkoak
- 23:47 Jazzmina
- 00:15 Emisio amaiera

arrasate irratia

FM 107.7

> Kirolen geltokia: pilotako finala 10:30

Gaur, astelehena, atzoko lau t'erdiko pilota finalaren inguruan jardungo dute Juanito Arriaranekin: futbol jardunaldia ere izango dute aztergai; eta, 11:20ak aldera, Danbaka musika lehiaketako finalistak ezagutuko ditugu.

Astelehenetik egubakoitzera

- 10:00-12:00 Igo autobusera!
- Albistegia
- Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
- Ibili Munduan geltokia
- Elkarrizketak
- Lorategiaren geltokia
- Zozketak
- Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegi.
- 14:00 Igo autobusera! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

Zapatua

- 10:00 Asteko gainbegiratu.
- 18:45 Albiste aurrerapena
- 19:15 Danbaka berezia
- 19:45 Berriak
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
- 20:45 Berriak
- 21:15 Teknopolis
- 21:45 Gaurkoak
- 21:47 Hitz Bitan
- 22:15 Santamasetako
- 22:45 Berriak
- 23:15 Berbaire
- 23:45 Gaurkoak
- 23:47 Jazzmina
- 00:15 Emisio amaiera

Domeka

- 10:00 Asteko gainbegiratu.
- 16:00 Danbaka: Scam.
- 23:00 Danbaka: Scam.

gertutik



Fermin Etxegoien
Kazetaria

"Kantabriara asko jotzen dut; aukera ederrak dira han"

Euskadi Gaztean *Ekaitz perfektua* musika irratsaioa gidatzen du Fermin Etxegoienek (Oñati, 1966), aste barruan, 20:00etatik 21:00etara. ETB1eko *Kalaka* saioan gidolari lanetan ari da baita ere. Egubakoitzeko *ekaitza* Bilbon gertatzen zebilela, Elgetara, *Danbaka*-ra etorri aurretik hitz egin genuen harekin.

Zein izango da gaurko lehenbiziko kantua *Ekaitz perfektua*-n?

Kantu zahar batekin hasten gara beti aurkezpena egiten eta bigarren euskal artistaren batena izaten da. Gaurkoa Ruperrri eskainitako saioa denez, *If not now, whenever* (The Books) izango da kantu izarra.

Durangoko azokan erosketa poltsa bete zenuen?

Ez nintzen egon, baina ekarri dizkidate hainbat liburu... Montoiaren *Euskal Hiria sutan* irakurtzeko daukat. Ia oharkabean pasatu den liburu bat nabarmendu nahi nuke: Jose Angel Irigarainen *Denboraren mugan*, hizkuntzaren eredu oparoa eta aberatsa dena.

Aste bukaeran zer egitea gustatzen zaizu?

Aisialdia hiriarekin (Bilbo), naturarekin (mendia), Nafarroarekin (udaberrian eta udan) eta herriarekin (Oñati) lotzen dut. Bilbotik gertu dagoenez, Kantabriara ere asko jotzen dut: aukera ederrak eskaintzen ditu, Euskal Herria baino askoz ere prezio merkeagoan, gainera.

Zein gairen gaineke eztabaida nahiko zenuke *Kalaka*-n? Identitateak eta mugak.

TVEn azken 50 urteotako irudi esanguratsuena aukeratzen ari dira. Zuk zein aukeratuko zenuke?

Politikoak etortzen zaizkit burura: Francoren heriotza, estatu kolpea, New Yorkoko atentatua ere bai...

Egunkariak erosi ala Internetik irakurtzen dituen horietakoa zara?

Erosten dut, baina, egia esateko, nahiko aspertuta nago. Pentsaren gainbehera nabaria da. Nondik hasten naizen irakurtzen? Interesatzen zaizkidan egunkariak, azaletik.

Non igaroko dituzu Gabonak?

Gabon gaua Oñatin eta Gabon zahar gaua ikusiko da. Olentzerori zer eskatu diodan? Gauzak ez daitezela okerrera joan.

asteko hitzorduak

Kontzertua



ARETXABALETA ETA BERGARA
> Gabonetako kontzertua egingo dute musika eskolako ikasleek

Gabonetako emanaldi berezia egingo dute Leizarra musika eskolako ikasleek bihar, 18:30ean, parrokan. Bergarako Musika Eskolakoek, berriz, 19:00etan egingo dute Gabonetako emanaldia, Udal pilotalekuan.

Berriketaldia



ARRASATE
> Juan Luis Zabala idazlearen liburu bat komentatuko dute Monterronen

Udal Liburutegiaren Literatura Solasaldien barruan, Juan Luis Zabala azkotiarren *Galdutako arte* nobelaz berba egingo du euskarazko taldeak bihar, martitzena, Monterronen. Gaztetxe baten okupazioa gogoratzen du lanak.

Kontzertua



BERGARA
> Hora Zulu taldeak kontzertua egingo du egubakoitzean Jam aretoan

Granadako Hora Zulu metal, flamenko eta hip hop taldeak *El que la lleva la entienda* disko berria aurkezteko bira egiten dabil, eta Bergarako Jam aretora etorriko dira hilaren 22an, egubakoitza, 19:30ean.

kuskuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Urte berrian
euskararen
sugea gurean

Urteko azkeneko **ASTELEHENKO GOIENKARIA** itxura berrituta datorrigu. Hala ere, ez da itxura orrialde haetan aldatu den bakarria. Itxuraz gain, mamia ere ezberdina dakar astekari berrituak; ikusgarriagoa, biziagoa eta kuskuxeroagoa izango da-eta!

Aste buruak eman dituen kontuei begira jarrita hainbat hitzordutan jarri ditu begiak eta belarriak gure kuskuxeroak. Egubakoitzean, esaterako, **Arrasateko Udal Euskaltegiko** ikasle eta irakasle ohiekin izan ginen.


"Arrasateko Udal
euskaltegiko ikasle
era irakasle ohiek
afaria egin zuten
egubakoitzean"

Gure argazkilariaren aginduetara, bertaratutako lagunak txintxo-txintxo mahaitik altxatu eta argazkirako jarri ziren. Hori irribarrea erakusten dutena! Kontuan hartzea da, bestalde, afalurretik ateratako argazkia dela. Han izan zen **Joxe Mari Muxika**, Topaguneko lehen-dakari ohia eta Udal euskaltegiko ikasle ohia.

Hika, hika, hika hemen dator Korrika! Izan ere, datorren urtean, euskararen aldeko *sugeak* Euskal Herria zeharkatuko du. **Oscar Elizburu** AEKko kideak esan digunez "besoak zabalik hartuko dugu ideia freskoekin laguntzera datorren edonor". Hori ba, urte berria, astekari berritua eta ideia freskoak. Ahaztu aurretik, ondo pasa Gabonak eta urte berri on!

hildakoak

- **Jose Zurbano Sagastui.** Aretxabaletan, abenduaren 17an. 80 urte.
- **Felisa Arana Ezpeleta.** Aretxabaletan, abenduaren 17an. 85 urte.



asteburuko albuma

PARTE HARTU

Kintadak, asteburuko ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com



Zorionak! Familia ospakizuna izan zuten atzo eguerdian Espe Agirrerren senideek. Izan ere, bihar, hilaren 19an, Esperen urtebetetze eguna da. Bada, egun handia ospatzeko, Kale Zaharreko elkartearen bildu ziren etxeko guztiak: senarra, alaba biak euren senarrekin, Asier, Leire, Mikel eta Jon bilobak eta beste hainbat lagun. Giro onean pasa zuten arratsaldea. Zorionak, Iñigoren, Monikaren eta Arantzazuren partetik!



Gaztaina erreak. Arrasate Herri Eskolako egubakoitz arratsalde hotza berotzen jakin zuten. Eskolako Guraso elkartearen izenean gaztainak erre eta Herriko Plazan banatu zituzten. Jende mordoxka hurreratu zen gaztainen usain goxora.

Bizarzuri. Domeka arratsaldean Bizarzuri izan zuten bisitan Oñatin. Gaztelekura hurbildu zen, eta berehala gerturatu zitzaizkion umeak. Guztiak agurtu eta musukatu zituen Bizar Zurik eta umeek Gabonetarako nahi dituzten opariak berri eman zioten. Eskatutako guztia ekarriko ote die Oñatiko umeei?

Arrasateko Udal
Euskaltegiaren 25.
urtemuga.

Horixe ospatzeko 85 lagun batu ziren barikuan Uarkapen egindako afarian. Lehengo eta gaur egungo ikasle, irakasle eta Udal Euskaltegiko langileekin batera udal ordezkariak ere izan ziren. Gainera, urtemuga iragartzeko kartel lehiaketako irabazleei barikuan eman zieten saria -Lizet Laime, Jana Pescador eta Guillermo Hauskarriaga-, baita Olentzerorendako gutun lehiaketako irabazleei ere -Mertxe Bedia, Arantxa Landaluze eta Ekaitz Luengo-. Eta, afaria biribiltzeko, Jokin Labaien eta Enaitz Alustiza bertsolarien saioa eta Txinparta taldearekin dantzaldia izan zuten, hain zuzen ere.

ESKELAK

ASTELEHENKO GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 85 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 5.000 etxetan.



zorion agurrak



ARRASATE
Paulo
Abenduaren 16an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Zure familiaren partetik!



ARRASATE
Jon Otxoa
Abenduaren 16an, 2 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik!



ARRASATE
Andoni Beitia
Abenduaren 17an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako. Musu handia etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Enaitz Arkauz
Abenduaren 17an, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik!



ARRASATE
Irati Gutierrez
Abenduaren 18an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Joxe M. Mendikute
Abenduaren 18an, 46 urte. Zorionak, Irati, Aitor eta Amaia partetik.



ARRASATE
Ane Berezibar
Abenduaren 19an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat Ane. Goienako lankideen partetik!



ARRASATE
Elia Izazelaia
Abenduaren 19an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Marta Rubia
Abenduaren 19an, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik!



ARRASATE
Markel Lana
Abenduaren 21ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Nahia Ruiz
Abenduaren 22an, 3 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik!



ARRASATE
Amaia Alortza
Abenduaren 22an, 8 urte. Zorionak, pitxin, eta muxu handi bat gurasoen eta Maddiren partetik



ARRASATE
Imanol Elortza
Abenduaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, *Ima!* Goienako lankideak.



ARRASATE
Iare Izazelaia
Abenduaren 29an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bana, etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Markel Vicente
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, eta formal ibili Gabon zahar egunean! Zure lagunak.



BERGARA
Beñat Arin Etxabe
Abenduaren 16an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoen partetik!



BERGARA
Gorane Polanco
Abenduaren 18an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat, aitaxoren partetik!




BERGARA
Patri Etxabe Orobengoa
Abenduaren 22an, urteak. Zorionak eta urte askotarako, etxekoen partetik!



BERGARA
Axier Laría
Abenduaren 30ean, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA
Irati Garai
Abenduaren 18an, 3 urte. Zorionak eta muxuak. Amaxo eta aitaxoren partetik!



ARETXABALEA
Joaquin Barbero
Abenduaren 19an, 100 urte. Zorionak! zure familia guztiaren partetik.



ESKORIATZA
Amaur Belategi
Abenduaren 18an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, printzesa, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Nora Freire
Abenduaren 22an, 6 urte. Zorionak, potxola, eta muxu handi bat amaxo eta Jonen partetik.



ORDIZIA
Iban Toledo
Abenduaren 22an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Goienako lankideen partetik.

jaiotakoak



Aimar Moreno Sanchez
Antzuola > 3,100 kg. Abenduaren 11. Gurasoak: Cris (Antzuola) eta Raul (Bergara). Argazkian, umea amaren beso-etan.



Andoni Manuel Ferreira Campos
Eskoriatza > 3,510 kg. Abenduaren 13a. Gurasoak: Isabel (Eskoriatza) eta Antonio (Eskoriatza). Argazkian umea gurasoekin.



Yara Moto Muñoz
Arrasate > 4,000 kg. Abenduaren 14a. Gurasoak: Maribel (Arrasate) eta Diego (Arrasate). Argazkian umea amarekin.




Naia Osinaga Elempuru
Arrasate > 3,300 kg. Abenduaren 15a. Gurasoak: Nagore (Arrasate) eta Jon (Arrasate). Argazkian umea lo.



Lucas Da Silva Moreira
Bergara > 3,750 kg. Abenduaren 16a. Gurasoak: Diulinda (Portugal) eta Jose (Portugal). Argazkian umea kuman lo.



June Ballesteros Uribarren
Aramaio > 3,660 kg. Abenduaren 16a. Gurasoak: Nerea (Aramaio) eta Joxean (Bergara). Argazkian umea kuman lo.



ZORIONAK!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENENKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emazio ezusteko ederra!



Aratz Navarro Ezpeleta
Arrasate > 3,800 kg. Abenduaren 17a. Gurasoak: Leire (Arrasate) eta Mikel (Urretxu). Argazkian umea kuman.

Abenduaren 18a:
112. zozketa

ASTELEHENENKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak, irabazleoi!

Gaur, abenduak 18, egin den zozketaren saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitzke hurrengo zozketaren irabazleetako bat!

112. zozketako saridunak

Bi sarrera abenduaren 22an ELGETAko ESPALOIAn izango den TXALO konpainiaren Artea antzezlanerako
• Txaro Martin Ganda (Arrasate)

ETXEKO TXIKIENDAKO SARIAK

- Marga Zabaleta (Arrasate)
- Alazne Rodriguez Garitano (Antzuola)
- Alaitz Beltran de Heredia (Aretxabaleta)
- Markel Gartzia Leturiaga (Oñati)
- Iker Kortabarria Zumalde (Oñati)
- Hodei Gomez de Balujera (Bergara)
- Amaur Belategi Madina (Eskoriatza)
- Xabier Argarate Oregi (Bergara)
- Uxue Azkarate (Bergara)
- Saioa Leturia Gabilondo (Bergara)
- Malen Balerdi Berezibar (Arrasate)
- Kepa Txintxurreta Irazabal (Oñati)
- Eskarne Ugarte Altuna (Aramaio)
- Jone Zinkunegi Altuna (Oñati)
- Mikel Elkoroberezibar Beloki (Bergara)
- Ainitze Artetxe Olabe (Arrasate)
- Itxaso Gantxegi Mazorriaga (Bergara)

• ESKAINTZA BEREZIA:

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun berri bat egitea lortzen baduzu sari bat emango dizugu: DVDA, argazki kamera digitala edo MP3a (*). Eta harpidedun berri horri merkeago aterako zaio urteko kuota: 35 euro.

Deitu abenduaren 18tik 22ra,
09:00etatik 18:30era 902-36 38 51



3 ARGAZKI KAMERA



2 DVD



5 MP3

* Deitzen duten lehenengo hamar lagunek jasoko dute saria.

PAMIELA argitaletxeko liburu sorta bat

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidedun saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902-36 38 51

Astelehenetik egubakoltzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidedun kuota:

37 euro

2007ko harpidedun.
44 zenbaki.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Virginia Imaz > Aktorea

"Umorearekin askoz hobeto bizi naiz ni"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Barre nola egin irakasten harrapatu dugu Virginia Imaz Bilbon. Ipuinak kontatzen ere ibiltzen da herriz herri; oraingo astean Leonera doa. Egun bakoitzari zerbait ona ateratzen saiatzen dela aitortu digu.

Zerk ematen dio barregura jendeari?

Gauza askok, umore landuak batzuetan eta baita umeenak ere. Nire ikuskizunetan ere barrez ikusten ditut ikusleak.

Eta zuri?

Neure buruak, senarrak eta alabak, besteak beste.

Umore konprometitu da zuk egiten duzuna?

Horretan saiatzen naiz, behintzat. Niri umoreak bizitza aldatu dit, umorearekin askoz hobeto bizi naiz.

Diote zaila dela ipuinak kontatzea?

Ipuin asko entzun behar dira ipuinak kontatzen hasteko. Zaila da bihotzetik kontatzea, eta horretan saiatzen naiz ni.

Nork kontatzen zizkizun zuri lehen ipuinak?

Bi amamek. Oraindik ere gogoratzen ditut ipuin haiek, eta batzuetan kontatu egiten ditut. Ipuin zaharrak, liburuetatik ateratakoak edo berriagoak, denetarikoa kontatzen ditut.

Beste ipuin kontalarien saioetara ere joaten naiz. Kanpotarrrak baldin badira, izugarri gustatzen zait euren kultura hobeto ezagutzea.

Zein lanek izan du arrakasta handien?

TEST-A

Herria: Donostia. **Adina:** 44 urte. **Ikasketak:** Irakasle ikasketak eta hizkuntzak. **Zaletasunak:** Zinema eta jolas, amodioa eta barre egitea. **Zer izan da 2006ko onena?:** Jendeak erantzutea egunkarian idazten dudana. **Eta txarrena?:** Osabaren heriotza eta aita ospitaleratzea. **Ikusi duzun azken antzezlana?:** *Lorca somos todos*. **Egin dizuten azken oparia?:** Lore txiki batzuk dituen landare bat eta bonboiak.

La modelo clown contrapublicitaria lanak, adibidez, 19 urte ditu. Arrasaten egin dut duela egun batzuk eta aretoa lepo bete zen; jendeak barre egin eta ondo pasa zuen, gainera.

Ze mezu zabaldu gura duzu?

Nik gura dut jendeak bere buruarekin ere barre egitea, horixe lortu gura dut.

Hara eta hona zabilta beti?

Antzezlanak prestatzen, zuzentzen, ikastaroak ematen, ipuinak kontatzen... Badakizu, pailazoaren bizimodua ez da hain erraza eta gauza asko egin behar izaten dira batera.

Nola ospatuko dituzu aurten Gabonak?

Opor egunetan ikastaro batzuk eman behar ditut eta jaiegunak etxeokekin pasako ditut, familiarekin.

Olentzeroren bisita espero duzu?


Bai, horixe! Urtero etortzen da gurera Olentzero eta aurten ere etorriko da!



SAIO AURRETIK Eskoriatzako Inkernu tabernan izan ginen harekin, zapatuan. J.A.

www.goiena.net

Memoria Historikoaren Legea egokia iruditzen zaizu?



biharamuna

Iñigo Biain


Historia ezabatua

Nire adin ingurukoek gogoan izango dute **Luxio Errasti**. Futboleak gol errazena huts egiten zituena hanka zuzentzeko ahalmena omen zuen, eta baita zulatutako baloiak eta gurpilak konpontzeko ere, besteak beste. Baina gaur ez dut oñatiar honi buruz hitz egingo, haizea galtzen duten burmuinak eta bide okerretik eramaten gaituen pausua zuzendu dezakeen beste Luxio bati buruz baizik: **Lucio Urtubia**. Lucio anarkista eta nafarra da, baina baita 72 urte izan dituen arte igeltsero aritu den paristarra ere. Bankuak eta boteredunak dardarka jarri zituen urte askoan, baina gaur egun inor gutxi



ausartzen da esaten lapurra edo kriminala denik, ez da-eta lapur eta kriminalen antzera aberastu. Baina badu aberastasun handi bat: botereak liburuetatik ezabatu nahi izan duen historia ezagutzen du, eta muxu-truk banatzen du jakituria hau, garai batean milioika dolar faxismoaren aurka borrokatzeko muxu-truk banatu zituen bezalaxe. **Aitor Arregi** zinegile gazteak, **Oñatiko Gazte Asanbladak** eta **Erauntsi Bilguneak** ekarri zituzten Oñatira Lucio eta bere jakinduria, eta urteko azken zutabe honetan beraiei eskerrak ematea eta Lucioen ontasun eta handitasuna azpimarratzea besterik ez zait gelditzen.

eguraldia



MINIMOA
+05

MAXIMOA
+8

Laino gutxirekin baina fresko hasiko da eguna. Eguerditik aurrera zerua estali egingo da eta euria egingo du.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Trikiritixa
Bexamela ta pastela (Makela ta biber) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kopu Jankaria) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Itegia) | **HIK**
Itsas ontzi bat (Kaxarri) | **ITSAS**
Kupela (Espeldeta Larrañaga) | **KUPELA**
Mila galdera (Aitz / Maider) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kopu Jankaria) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Aitz / Maider) | **TXANPON**

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Reala | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herrikoiak
Bagaret | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

Folk
Arratsakie honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Benito Lerbundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorri) | **FURRA**

Artillerokoak
Artillero dale fuego | **ARTILLERO**
Marijara (Kopu Jankaria) | **JAIA**
San Fermín | **FERMIN**
San Martzialako alardea | **SAN MARTZIAL**

Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

IKURRIA	ADARIAK	MUSKARIA	EGUZKILORE1
EH1	BABAK	KALABERA1	EGUZKILORE2
BILBO	BERAKATZAK	POPATIK	EGUZKILORE3

WEBGUNEAN → www.smsoinu.com

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitziera bakarik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 94 02 00 telefonora, / * Vodafone: deitu 123-ra, / * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Eduzein zailatza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzaitegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileak eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.